

**A atala**  
**Euskadiko zerga-harremanak**  
**eta finantzaketa sistemak**

Parte A  
Relaciones tributarias y sistemas  
de financiación del País Vasco



# I. kapitulua

## Zerga-harremanak

### Capítulo I

#### Relaciones tributarias

#### **1. EKONOMIA ITUNA**

##### **1.a. Sorrera eta bilakaera historikoa**

Ekonomia Ituna, historian, euskal foru-erregimenaren funtsezko araua izanik, Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko harremanak antolatzeko elementua izan da.

Euskal Herriko lehen Ekonomia Ituntzat jotzen dute 1878ko otsailaren 28ko Errege Dekretua, eta zortzi urtez iraun zuen. 1876ko uztailaren 21eko Legea (Foruak indargabetzekoa) eta 1877ko azaroaren 13ko Dekretua (Ekonomia Itunaren oinarriak ezarri

#### **1. CONCIERTO ECONÓMICO**

##### **1.a. Origen y evolución histórica**

Históricamente, constituyendo una parte esencial de la foralidad vasca, el Concierto ha sido un elemento vertebrador de las relaciones entre el Estado y el País Vasco.

El Real Decreto de 28 de febrero de 1878 es considerado el primer Concierto Económico del País Vasco y tuvo una vigencia de ocho años. Fue fruto del proceso negociador abierto tras la promulgación de la Ley de 21 de julio de 1876, en la que se abolieron los

zituen) aldarrikatu ostean abiatutako negoziatio prozesuaren emaitza izan zen, lurralde historiko bakoitzak Estatuari urte horretan ordaindu beharreko kuota orokorrak ezarri baitziren.

Gero, 1887ko Aurrekontu Orokorren Legeko 14. artikulua bidez, beste Ekonomia Itun bat onartu zen, hura ere zortzi urterako. Horren ondoren etorri ziren 1894ko otsailaren 1eko Ituna, 1906ko abenduaren 13koa eta 1925eko ekainaren 9koa; guztira, 25 urteko indarraldia izan zuten.

Hala ere, 1937an diktadura frankistak indarririk gabe utzi zuen Bizkaia eta Gipuzkoarako hitzartutako zerga-araudia, eta horregatik, seigarren Ekonomia Ituna, 1952ko otsailaren 29koa, Arabarako bakarrik eman zen. Itun horren ondoren etorri zen, trantsizio politikoaren garaian, 1976ko azaroaren 26koa.

1978ko Konstituzioa eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua onartu ondoren, 12/1981 Legea, maiatzaren 13koa, hitzartu zen, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoarekin Ekonomia Ituna onartu baitzen, 20 urteko indarraldiarekin.

Azkenik, pilatutako esperientziarekin, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez, beste Ekonomia Itun bat onartu zen, epe mugagabea zeukala.

### **1.b. Esparru juridikoa**

Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza-eta zerga-harreman bereziak arautzen ditu Ekonomia Itunak. Alde batetik, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria du oinarri; horren bitartez Konstituzioak babesa eta errespetua ematen dizkie foru-lurraldeen eskubide historikoei, eta foru-araubidearen eguneratze orokorra egin dadila agintzen du. Bestetik, Autonomia Estatutuaren III. tituluan oinarritzen da, zeinak aitortzen duen lurralde historikoetako instituzio eskumendunen arautzeko ahalmena, horiek, beren esparruan, zerga-erregimena mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dutela berresten baitu.

Foru-erakundeek aitortua dute zerga-ahalmena, eta hori da Euskadiko zerga-

Fueros, y del Decreto de 13 de noviembre de 1877 que sienta las bases del régimen económico de concierto, al establecer unas cuotas globales que cada uno de los Territorios Históricos había de satisfacer al Estado en ese año.

Posteriormente, mediante el artículo 14 de la Ley de Presupuestos Generales de 1887 se aprueba un nuevo Concierto Económico, también vigente para ocho años. A éste le siguen los Concierdos de 1 de febrero de 1894, de 13 de diciembre de 1906 y de 9 de junio de 1925, con una vigencia de 25 años.

Sin embargo, en 1937 la dictadura franquista dejó sin efecto el régimen tributario concertado de Bizkaia y Gipuzkoa, lo que implicó que el sexto Concierto Económico, de 29 de febrero de 1952, se dictara exclusivamente para Álava. A este Concierto le sucedió, ya en la transición política, el de 26 de noviembre de 1976.

Después de la aprobación de la Constitución de 1978 y del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, se pacta la Ley 12/1981, de 13 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, con una vigencia de 20 años.

Por último, con la aportación de la experiencia acumulada, mediante la Ley 12/2002, de 23 de mayo, se aprueba un nuevo Concierto con carácter indefinido.

### **1.b. Marco jurídico**

El Concierto Económico regula las singulares relaciones tributarias y financieras entre el Estado y el País Vasco. Se fundamenta en la disposición adicional primera de la Constitución, que ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales, ordenando la actualización general del régimen foral, y en el Título III del Estatuto de Autonomía, que reconoce la capacidad normativa de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos, afirmando que éstas podrán mantener, establecer y regular dentro de su territorio su propio sistema tributario.

Este reconocimiento de la potestad tributaria foral, rasgo esencial de la especialidad vasca,

sistemaren berezitasunaren funtsezko osagaia. Hala, Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza- eta zerga-harremanak behar bezala antolatzea eskatzen du sistema horrek. Ildo horretatik, Autonomia Estatutuak arautzen du harremanok tradiziozko foru-sistemaren bitartez araupetu behar direla, hots, Ekonomia Itunen bitartez.

Era berean, Estatutuan bertan xedatzen da Itunaren erregimena Konstituzioan araututako elkartasun printzipioarekin bat aplikatuko dela eta haren edukia oinarritzko bi printzipio hauetara egokituko dela: erakundeen arteko zerga-harremanetara batetik, eta finantza-harremanetara bestetik. Beraz, lurralde historikoetako instituzio eskumendunen zerga-ahalmena aitortzen da, haien esparruan zerga-erregimena mantendu, ezarri eta arautzeko. Hori guztia Estatuaren zerga-egitura orokorrari jarraituz, Ekonomia Itunak berak Estatuarekin koordinazio, harmonizazio fiskal eta lankidetzarako dituen arauak betez eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan helburu horrekin Eusko Legebiltzarrak arautzen duenari lotuz egin behar da.

Halaber, foru-aldundiek eskumena dute beren lurralde historikoan zerga guztien ordainarazi, kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko; hala ere, horren salbuespen dira Aduanen Errentan sartzen direnak eta gaur egun Monopolio Fiskalen bidez biltzen diren zergak. Hori guztia Estatuarekiko lankidetzaren baitan eta Estatuaren goi-ikuskapeneko eskumenei eutsiz egingo da. Azken finean, zerga-esparruan arautzeko eta kudeatzeko ahalmen osoa aitortzen zaie lurralde historikoetako erakunde eskumendunei; hori horrela, fase guztietan eta, betiere, koordinazio, harmonizazio eta lankidetzaren fiskalaren gaineko arauak errespetatzen dira.

Bestalde, finantza-harremanak Estatuari ordaindu beharreko kupoaren bidez zehazten dira. Horrela, Estatutuan adierazten da EAEk Estuari egingo dion ekarpena kopuru orokor bat izango dela, eta Autonomia Erkidegoak bere gain hartu gabeko Estatu-kargen kontribuzio gisa lurralde bakoitzak emandako kopuruez osatuko dela. Estatuko eta EAEko erakundeetako ordezkariak osatutako batzorde parekide batek zehaztuko ditu kupo orokorra eta lurralde historiko bakoitzak ordaindu beharrekoa. Horrela adostutako kupa legeaz onartu beharko da, Ekonomia

tiene como consecuencia la necesaria adecuación y ordenamiento de las relaciones de carácter tributario y financiero entre el Estado y el País Vasco, estableciéndose para ello en el propio Estatuto que estas relaciones se regularán mediante el sistema foral tradicional de Concierto Económico.

Así mismo, en el Estatuto se dispone que el régimen de Concierto se aplicará de acuerdo al principio constitucional de solidaridad y su contenido se acomodará en torno a dos principios básicos, relativos, por un lado, a las relaciones tributarias y, por otro, a las relaciones financieras entre los mismos. Se reconoce, por tanto, la capacidad de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para mantener, establecer y regular dentro de su territorio el régimen tributario, atendiendo a la estructura general impositiva del Estado, a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado contenga el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para estos fines dentro de la Comunidad Autónoma.

Además, se establece la capacidad de cada Diputación Foral, dentro de su Territorio Histórico, para exaccionar, gestionar, liquidar, recaudar e inspeccionar todos los impuestos, salvo los que se integran en la Renta de Aduanas y los que se recaudan a través de Monopolios Fiscales, sin perjuicio de la colaboración con el Estado y su alta inspección. En definitiva, se reconoce la plena capacidad normativa y de gestión en el ámbito tributario de las Instituciones competentes de cada Territorio Histórico, en todas sus fases, respetando diferentes normas sobre coordinación, armonización y colaboración fiscal.

Por otra parte, las relaciones financieras se instrumentan mediante el cupo a pagar al Estado. Así, se afirma en el Estatuto que la aportación del País Vasco al Estado consistirá en un cupo global, integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios, como contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma. Del mismo modo, se dice que la cuantificación del cupo global y los correspondientes a cada Territorio Histórico se realizará en el marco de una comisión paritaria Estado-País Vasco. El cupo, así

Itunean finkatutako maiztasunarekin. Nolanahi ere, urteka gaurkotu daiteke, Itunean adieraziko den prozeduraren bidez.

Autonomia Estatutuak xedatutakoa betez, 1981eko zein 2002ko Ekonomia Itunek bi kapitulu nagusi dituzte.

I. kapituluak tributuei buruzko alderdiak jasotzen dira, eta horrela, zerga bakoitza ituntzeko modua ezartzen da. Oinarri-oinarrian, zerga bakoitzaren lotura-puntuak zehazten dira, foru-ogasunek eta Estatuko Ogasunek dituzten araugintza- eta kudeaketa-eskumenak mugatzeko.

II. kapituluak, kupoari eta finantza-harremani dagokienak, bi atal ditu: arau orokorrak eta kupo zehazteko metodologia. Bereganatu gabeko eskumenengatik, Estatuko karga orokorrei EAEk nola erantzun behar dien ezartzen du kapituluak. Berezitasun hori finantza-fluxu batean gauzatzen da, Estatuari ordaindu beharreko kupoaren bidez.

Bi Ekonomia Itunek aurreikusten dute, bigarren xedapen gehigarrian, administrazioek adostu egin behar dituztela Itunen balizko aldaketak eta Estatuaren tributuo-sistemaren aldaketetara egokitzea, betiere tributuoak ituntzeari eragiten badiote. Indarrean dagoen Itunak zehazten du adosteko beharra egongo dela araugintza-eskumenen banaketa aldatzen bada eta aldaketa horrek zeharkako zergapetzeari eragiten badiot, edo zerga edo konturako ordainketa berririk sortzen bada.

Gainera, 2002ko Itunak III. Kapituluak du, Ekonomia Itunaren Batzordeei eta Arbitraje Batzordeari buruzkoa. Kapitulu horren bidez, administrazioen arteko lankidetzaren printzipioa nabarmentzen da eta Ekonomia Ituna aplikatzerakoan segurtasun juridiko handiagoa lortzeko prozedurak indartzen dira.

### **1.c. Sistemaren ezaugarriak**

Aurrez adierazitakoa kontuan hartuz gero, Ekonomia Itunaren sistemaren funtsezko elementuak ondoriozta daitezke. Horrela, honako hauek dira, labor adierazita, itun-

acordado, deberá aprobarse por Ley, con la periodicidad que se fije en el Concierto, sin perjuicio de su actualización anual por el procedimiento que se establezca.

Tanto el Concierto de 1981 como el Concierto de 2002 se articulan, conforme al Estatuto de Autonomía, en dos grandes capítulos.

En el Capítulo I se recogen los aspectos relativos a los tributos, estableciéndose la concertación para las diferentes figuras tributarias. Básicamente, se fijan los puntos de conexión para delimitar las competencias normativas y de gestión de las Haciendas Forales y la Hacienda del Estado.

El Capítulo II, referido al cupo y las relaciones financieras, comprende dos secciones: normas generales y metodología de determinación del cupo. Se establece la forma en que el País Vasco debe contribuir al sostenimiento de las cargas generales del Estado por competencias no asumidas. Esta singularidad se materializa en un flujo financiero, el cupo a abonar al Estado.

Ambos Conciertos prevén, en la disposición adicional segunda, la necesidad del común acuerdo entre Administraciones para su modificación en aquello que consideren conveniente y su adaptación a los cambios del sistema tributario del Estado que afecten a la concertación de los tributos. El Concierto vigente amplía esta necesidad de adaptación a aquellos casos en los que se produzca una alteración del reparto de competencias normativas que afecte al ámbito de la imposición indirecta, se crearan nuevas figuras tributarias o pagos a cuenta.

En el nuevo Concierto de 2002, también, se incluye un nuevo Capítulo III, dedicado a las Comisiones y la Junta Arbitral, subrayándose de este modo el principio de colaboración entre Administraciones y reforzándose los procedimientos orientados a conseguir una mayor seguridad jurídica en la aplicación del Concierto Económico.

### **1.c. Características del sistema**

De lo antes expuesto se desprenden los aspectos sustantivos del sistema de Concierto Económico y que pueden resumirse en las siguientes características básicas:

sistemaren oinarritzko ezaugarriak:

#### Itundutako sistema.

Hori da sistemaren funtsezko ezaugarrietako bat, administrazio ezberdinek, bere eskumenak jorraturik, elkarren arteko harremanetarako arauak adosten dituzte tributuen eta finantzen alorrean. Ekonomia Itunak, beraz, itundutako legeak dira, eta izaera horixe bera dute haiek egokitzeko eta aldatzeko legeek eta kupoaren bost urteko legeek.

#### Tributu-gaietarako berezko araugintzako ahalmena.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek eta Estatuak zergen arloko arauak egiteko ahalmena dute, eta berezko tributu-sistema garatu eta egituratzen dute. Harmonizazio fiskalak eta araugintzako eta ordainarazpeneko lotura-puntuak bermatzen dute tributu-sistemen garapen harmonikoa.

#### Tributuak kudeatzeko autonomia.

Foru-aldundiei dagokie tributuak ordainarazi eta kudeatzeko prozedura ezartzea, fase guztietan, eta prozedura hori ez da lagapen baten ondorioz ezartzen; aitzitik, beste zerga-administrazioekin batera gauzatzen den berezko ahalmenaren ondorio da.

#### Aldebakarreko arriskua.

EAEk bere gain hartu behar ditu Itunaren kudeaketatik eratorritako emaitzak, horiek onak ala txarrak izan. Estatuak ez du foru-aldundiek lortutako diru-bilketan parte hartzen, eta ez du Autonomia Erkidegoko herri-gastuen estaldura ere bere gain hartzen. Bestalde, Estatuari eman beharreko kontribuzioa, kupoa, ez da EAEn jasotako diru-sarreraren arabera kalkulatu, aldagai exogenoen menpe baitago; hala nola, bereganatu gabeko eskumeneei dagozkien gastuak Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotakoak.

#### Sistema paccionado.

Éste es uno de sus rasgos esenciales, derivado de la consideración de las diferentes potestades que, en el ejercicio de sus respectivas competencias, acuerdan unas normas de relación, en este caso en los ámbitos tributario y financiero. Los Concierdos Económicos son, por tanto, leyes paccionadas, al igual que sus leyes de adaptación y modificación, y las Leyes Quinquenales de Cupo.

#### Potestad normativa tributaria propio.

Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos, así como el Estado, disponen de la potestad normativa en materia tributaria, desarrollando y configurando su propio sistema tributario. La armonización fiscal y las conexiones normativas y exaccionadoras garantizan el desarrollo armónico de los distintos sistemas tributarios.

#### Autonomía de gestión tributaria.

El procedimiento de exacción y gestión tributaria, en todas sus fases, correspondiente a las Diputaciones Forales no es fruto de una cesión, sino una potestad propia que se ejerce, en su caso, en colaboración con otras administraciones tributarias.

#### Riesgo unilateral.

Los resultados, buenos o malos, derivados de la gestión del Concerto corresponden sólo al País Vasco. Al igual que el Estado no participa de la recaudación obtenida por las Diputaciones Forales, tampoco asume la cobertura de los gastos públicos de la Comunidad Autónoma. Por otra parte, la contribución al Estado, el cupo, no se calcula según los ingresos recaudados en el País Vasco, depende de variables exógenas como los gastos en competencias no asumidas de los Presupuestos Generales del Estado.

## **2. 1981EKO EKONOMIA ITUNA**

## **2. CONCIERTO ECONÓMICO DE 1981**

Maiatzaren 13ko 12/1981 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena, Ekonomia Itunaren ohiko foru-sistemaren lehen gauzapena izan zen, deskribatutako esparru juridikoaren barruan.

Zerga-sistemen eboluziora egokitzeko, 20 urteko indarraldian, honako aldaketa eta egokitzapen hauek egin zitzaizkion 1981eko Itunari:

- 49/1985 Legea, abenduaren 27koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergara egokitzen duena. Kupoaren Batzorde Mistoaren 1985eko irailaren 27ko akordioa.
- 2/1990 Legea, ekainaren 8koa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legera eta Tasa eta Prezio Publikoen Legera egokitzen duena. Kupoaren Batzorde Mistoaren 1988ko abenduaren 28ko akordioa.
- 27/1990 Legea, abenduaren 26koa, Ekonomia Ituna partzialki aldatzen duena. Kupoaren Batzorde Mistoaren 1990eko urriaren 4ko akordioa.
- 11/1993 Legea, abenduaren 13koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legera eta Zerga Berezien Legera egokitzen duena. Kupoaren Batzorde Mistoaren 1992ko abenduaren 17ko akordioa.
- 38/1997 Legea, abuztuaren 4koa, Ekonomia Ituna aldatzea onartzekoa. Kupoaren Batzorde Mistoaren 1997ko maiatzaren 27ko akordioa.

Kupoaren bost urteko sei lege onartu ziren, eta horien bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko kupo zehazteko metodologia onartu zen:

- 43/1988 eta 44/1988 Legeak, abenduaren 28koak, 1982-1986 eta 1987-1991 bosturtekoetarako. Kupoaren Batzorde Mistoaren 1987ko abenduaren 4ko akordioa.
- 7/1993 Legea, apirilaren 16koa, 1992-1996 bosturtekoetarako. Kupoaren Batzorde Mistoaren 1992ko maiatzaren 6ko akordioa.
- 37/1997 Legea, abuztuaren 4koa, 1997-

La Ley 12/1981, de 13 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la CAPV, significó, dentro del marco jurídico descrito, la primera materialización del sistema foral tradicional de Concierto.

En sus 20 años de vigencia, como consecuencia de la evolución de los sistemas tributarios, el Concierto de 1981 fue objeto de las siguientes adaptaciones y modificaciones:

- Ley 49/1985, de 27 de diciembre, de adaptación al Impuesto sobre el Valor Añadido. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 27 de septiembre de 1985.
- Ley 2/1990, de 8 de junio, de adaptación a la Ley Reguladora de las Haciendas Locales y a la Ley de Tasas y Precios Públicos. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 28 de diciembre de 1988.
- Ley 27/1990, de 26 de diciembre, por la que se modifica parcialmente el Concierto Económico. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 4 de octubre de 1990.
- Ley 11/1993, de 13 de diciembre, de adaptación a la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido y a la Ley de Impuestos Especiales. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 17 de diciembre de 1992.
- Ley 38/1997, de 4 de agosto, por la que se aprueba la modificación del Concierto Económico. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 27 de mayo de 1997.

También, se aprobaron seis Leyes Quinquenales de Cupo, por las que se aprueba la metodología de determinación del cupo del País Vasco:

- Leyes 43/1988 y 44/1988, de 28 de diciembre, para los quinquenios 1982-1986 y 1987-1991. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 4 de diciembre de 1987.
- Ley 7/1993, de 16 de abril, para el quinquenio 1992-1996. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 6 de mayo de 1992.
- Ley 37/1997, de 4 de agosto, para el



2001 bosturtekorako. Kupoaren Batzorde Mistoaren 1997ko maiatzaren 27ko akordioa.

- 3/2002 Legea, maiatzaren 23koa, 2002-2006 bosturtekorako. Kupoaren Batzorde Mistoaren 2002ko martxoaren 6ko akordioa.
- 29/2007 Legea, urriaren 25ekoa, 2007-2011 bosturtekorako. Kupoaren Batzorde Mistoaren 2007ko uztailaren 30eko akordioa.

## **2.a. Balio Erantsiaren gaineko Zergara egokitzea**

Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan sartzeak izugarriko aldaketa ekarri zuen zeharkako zergetan. Ekonomia Ituna errealitate berri horretara egokitu zen, gai horretan Erkidegoko arau harmonizatzaileak betez. 1986az geroztik, BEZa da zeharkako ezarpenaren ardatza, eta eragina izan zuen ordura arte indarrean zeuden zeharkako zergetan.

Beraz, zerga berria ituntzea ekarri zuen egokitze horrek, eta, aldi berean, desagertutako zergen gaineko aipamenak kendu ziren, hau da, Enpresen Trafikoaren gaineko Zerga Orokorrarenak eta Luxuzergarenak. Gainera, finantza-doiketa berria sortu zen, administrazio bakoitzari egozgarri zizaion BEZaren aldeetatik (bere esparruko benetako kontsumoaren arabekoaren eta ogasun bakoitzak benetan jasotakoaren artekoa). Barruko Kargak Konpentsatzeko Zergari eta Esportazioaren Zerga-arinketa Fiskalari zegozkien zuzenketak ordeztu zituen finantza-doiketa horrek.

## **2.b. Toki Ogasunak arautzeko Legea eta Tasa eta Prezio Publikoen Legea**

Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legea eta Tasa eta Prezio Publikoen apirilaren 13ko 8/1989 Legea direla eta egin zen bigarren egokitzapena. Tokiko tributu-sistemaren erreforma eta tributu berriak ekarri zituen. Zerga hauek eratu zuten tokiko tributu-ezarpenaren egitura berria: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga; Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga; Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren

quinquenio 1997-2001. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 27 de mayo de 1997.

- Ley 3/2002, de 23 de mayo, para el quinquenio 2002-2006. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 6 de marzo de 2002.
- Ley 29/2007, de 25 de octubre, para el quinquenio 2007-2011. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 30 de julio de 2007.

## **2.a. Adaptación al Impuesto sobre el Valor Añadido**

La incorporación de España a la Comunidad Económica Europea significó un cambio radical de la imposición indirecta, en cumplimiento de las normas armonizadoras comunitarias en esta materia, adaptándose el Concierto Económico a esta nueva realidad sobrevenida. Desde 1986 la imposición indirecta gira en torno al IVA, afectando a los impuestos indirectos hasta entonces vigentes.

Esta adaptación consistió, por lo tanto, en concertar el nuevo Impuesto, eliminando las referencias a los tributos desaparecidos, Impuesto General sobre el Tráfico de Empresas e Impuesto de Lujo. También, se creó un nuevo ajuste financiero por la diferencia entre el IVA atribuible a cada Administración, según el consumo real de su ámbito y el efectivamente recaudado por cada una de las Haciendas, que sustituía a los ajustes por el Impuesto de Compensación de Gravámenes Interiores y la Desgravación Fiscal a la Exportación.

## **2.b. Ley Reguladora de las Haciendas Locales y Ley de Tasas y Precios Públicos**

La segunda adaptación se produjo con la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, Reguladora de las Haciendas Locales y con la Ley 8/1989, de 13 de abril, de Tasas y Precios Públicos. Supuso la reforma del sistema impositivo local y la aparición de nuevas figuras tributarias. La nueva imposición municipal se configuró en torno al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, el Impuesto sobre Actividades Económicas, el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, el Impuesto sobre

gaineko Zerga; eta Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga.

Halaber, gainerako tributuen antolaketa juridiko berria egin zen, Tasak eta Kontribuzio Bereziak esaterako; eta zuzenbide publikoko diru-sarreraren kategoria berria arautu zen: Prezio Publikoak, hain zuzen.

Tributu-antolamendu berria tributu ezberdinetan eraiki zen, eta ituntze-sistema tributu berri horietara egokitu zen, Itunean sartutako aldaketen bitartez. Testuaren hobekuntzak aparte utzita, osagai teknikoa eta automatismoa izan zituen bereizgarri egokitzapenak; hala ere, horrek ez zuen aldatu ordura arte indarrean zegoen Estatuaren eta EAEn arteko eskumen-banaketa, lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren lurraldean tokiko tributu-araubidea antolatzeko duten tributu-ahalmenaren aitortzearen oinarritutakoa.

## **2.c. 27/1990 Legearen bidez zati batean aldatzea**

Sozietateen gaineko Zerga ituntzean hartutako eskarmentua baliatu zen aldaketa hori egiteko. Agerian geratu zen zailtasunak zeudela negozio-kopuru erlatiboaren irizpidea aplikatzeko, eta, halaber, diskordantziak zeudela Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoren arteko Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako sistemarekin. Lotura-puntu berria Balio Erantsiaren gaineko Zergarako ezarritakoa izango zela erabaki zen.

Modu horretan, enpresa eta subjektu pasiboek zerga zein tributu-administrazioari ordaindu behar dioten jakiteko, irizpide berak erabil daitezke BEZean eta Sozietateen gaineko Zergan, eta horrek sinplifikatzeko aurrerapen handia ekarri zuen. Funtsean, aldaketak Sozietateen gaineko Zergari eragin zion, bat-egiteen zerga-araubidea eta ordainketa bateratua barne; eta, zeharka, kudeaketa- eta ikuskaritza-prozedurari eta BEZa ordainarazteko muga kuantitatiboari ere bai.

Aldi berean, EAEn zerga-egoitza duten entitate guztietara hedatu zen lurralde historikoetako erakundeen araugintza-eskumena, nahiz eta entitate horiek lurralde erkideari ere ordaindu. Hori hala izateko

Construcciones, Instalaciones y Obras y el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

Además, se conformó una nueva ordenación jurídica del resto de tributos, como las Tasas y las Contribuciones Especiales, regulándose una nueva categoría de ingresos de derecho público constituida por los Precios Públicos.

En tanto el nuevo ordenamiento tributario se traza sobre unas figuras tributarias distintas, la concertación se adaptó a esas nuevas figuras y se hizo preciso introducir cambios en el Concierto. Al margen de las mejoras del texto, esta adaptación se caracterizó por su componente técnico y de automatismo, que no alteró el reparto de competencias preexistente entre el Estado y el País Vasco, basado en el reconocimiento de la potestad tributaria de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para articular el sistema tributario local en su respectivo territorio.

## **2.c. Modificación parcial mediante la Ley 27/1990**

Esta modificación es fruto de la experiencia acumulada en la concertación del Impuesto sobre Sociedades. Se constató la existencia de dificultades para la aplicación del criterio de cifra relativa de negocios y de discordancias con el sistema establecido en el Convenio Económico entre el Estado y la Comunidad Foral Navarra. El nuevo punto de conexión adoptado fue el establecido para el Impuesto sobre el Valor Añadido.

De esta forma, para el reparto del Impuesto a una u otra administración tributaria las empresas y sujetos pasivos pueden ajustarse a los mismos criterios en el IVA y en el Impuesto sobre Sociedades, lo que supuso un importante avance simplificador. La modificación afectó básicamente al Impuesto sobre Sociedades, incluyendo el régimen fiscal de fusiones, tributación consolidada y, colateralmente, al procedimiento de gestión e inspección y al límite cuantitativo para la exacción del IVA.

También, supuso una ampliación de la competencia normativa de las Instituciones de los Territorios Históricos a todas las entidades con domicilio fiscal en el País Vasco, con independencia de que tributen a

baldintza zen entitateek ez egitea euren eragiketen zenbatekoa % 75 baino gehiago lurralde erkidean; horrela izango balitz, arautegi erkidearen pean izango lirateke. Horrek berezko tributu-politika egiteko aukerak handitu zituen.

## **2.d. Merkatu Bakarrera eta zeharkako ezarpenaren erreformara egokitzea**

Barne-merkatua 1993an sortu zen eta, ondorioz, muga fiskalak ezabatu eta zeharkako ezarpena erreformatu zen Europar Batasuneko estatu kide guztietan. Horrek Ekonomia Ituna egokitzeko premia sorraziti zuen.

BEZean zergapeko egitate berri bat itundu zen, Europako Erkidego barneko eskuratzeak; izan ere, lehen inportazioetat jotzen ziren, eta harrezkero ondasun-emateen eta zerbitzu-prestazioen antzera tratatu ziren. Kasu gehienetan, lotura-puntu horrek ez zion eragin likidazioen emaitzak Administrazioen artean banatzeko irizpideari, arau-aldaketak ahalik eta eraginik txikiena izan zezan subjektu pasiboengan.

Aldi berean, aldaketak xehetasun batzuk ekarri zituen "eragiketen zenbateko osoa" kontzeptuaren gainean; kontzeptu hori 300 milioi pezetaren arau sinplifikatzailea aplikatzen den ala ez zehazteko ezarri zen Itunean.

Gainera, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezi berria itundu zen, eta horrela, ibilgailuaren behin betiko matrikulazio-tokia zehaztu zen lotura-puntutzat; hain zuzen ere, pertsonaren ohiko bizilekua izango da toki hori.

## **2.e. 38/1997 Legeak Ituna egokitu, aldatu eta zabaltzea**

Lege horrek eragindako aldaketen oinarria honako egokitzapen hauetan dago: batetik, 13/1996 Legearen bitartez Aseguru-sarien gaineko Zerga ezarri izana; bestetik, hainbat moldaketa gauzatu izana harmonizazio fiskaleko eta lankidetzako printzipioetan, ez-egoiliarrek lortutako etekinak kargatzen

ambas Administraciones, siempre y cuando su volumen de operaciones en territorio común no superase el 75%, en cuyo caso estarían sujetas a la normativa común. Ello elevó las posibilidades de elaborar una política tributaria propia.

## **2.d. Adaptación al Mercado Único y a la reforma de la imposición indirecta**

La creación del mercado interior en 1993 y, por consiguiente, la eliminación de las fronteras fiscales y la reforma de la imposición indirecta en todos los Estados miembros de la Unión Europea, obligaron a la adaptación del Concierto Económico.

En el IVA se concertó un nuevo hecho imponible, las adquisiciones intracomunitarias, antes consideradas importaciones, que pasaron a tratarse de modo similar a las entregas de bienes y prestaciones de servicios. Su punto de conexión no afectó, en el común de los casos, al criterio de reparto entre las Administraciones del resultado de las liquidaciones, a fin de conseguir el menor efecto sobre los sujetos pasivos de la modificación normativa.

Así mismo, la modificación realizó una serie de precisiones sobre el concepto "volumen total de operaciones", establecido en el Concierto para determinar si se aplica o no la regla simplificadora de los 300 millones de pesetas.

Además, se concertó el nuevo Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte, concretándose su punto de conexión conforme al lugar de matriculación definitiva del vehículo, en coincidencia con el lugar en que la persona tenga su domicilio.

## **2.e. Adaptación, modificación y ampliación del Concierto por la Ley 38/1997**

Los cambios incorporados se debieron a la implantación del Impuesto sobre las Primas de Seguros por la Ley 13/1996, así como la introducción de modificaciones en los principios de armonización fiscal y de colaboración, en el régimen para la exacción de los tributos que gravan los rendimientos

dituzten zergak ordainarazteko araudian, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) aplikatu beharreko araudian eta sozietate-multzoetako zerga-araubidean.

Era berean, Hidrokarburoen eta Tabako Laboreen gaineko Zerga Bereziak biltzen zituzten zerga-monopolioak desagertu ondoren, horiek foru-ahalmenean sartu beharra zegoen, itun bidez. Beraz, bigarren itun bat da, Zerga Berezien eremu espezifikoa egina. Halaber, alkoholen gaineko ezarpen bereziaren ituna aintzat hartu behar zuen moldaketa horrek.

Eskematikoki, berrikuntza nagusi hauek sartu ziren Ekonomia Itunean:

- Arau harmonizatzaileak. Lau arau utzi ziren, eta horietako batek zioen foru-lurraldeko benetako zerga-presio orokorra Estatuko gainerakoaren parekoa izango zela.
- PFEZ. Foru-aldundiak, ordura arte arautzeko ahalmen murriztua zutelarik, harrezkero arautzeko ia ahalmen osoa izaten hasi ziren.
- Sozietateen gaineko Zerga. Zerga hori zela-eta, tributazio eskusiboa edo partekatua zehazteko eragiketen zenbatekoa 500 milioi pezetakoa izan zen guztira. Gainera, sozietate-elkarteen tributazio bateratua foru-araubidearen menpe geratu zen, araudi horren pean egonez gero bai sozietate menderatzailea, bai mendeko sozietate guztiak.
- Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Sozietateen gaineko Zergaren ereduari jarraituz, 500 milioi pezetako kopurua ezarri zen tributazio eskusiboa edo partekatua zehazteko.
- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Foru-araudia aplikatzeko, 10 urtetik 5era murriztu zen EAEn bizitzeko betebeharra.
- Ondarearen gaineko zerga. Zerga hori arautzeko ahalmen osoa eskuratu zuten

obtenidos por no residentes, en la normativa aplicable en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) y en el régimen de la tributación de los grupos de sociedades.

También, una vez desaparecidos los Monopolios Fiscales que recaudaban los Impuestos Especiales de Hidrocarburos y sobre las labores del Tabaco, era necesario proceder a su integración en la potestad foral, mediante su concertación. Se trata, por tanto, de una segunda concertación circunscrita al ámbito específico de los Impuestos Especiales que necesariamente, también, debía contemplar la concertación de la imposición especial sobre alcoholes.

Las principales novedades que se introdujeron en el Concierto Económico, de forma esquemática, fueron las siguientes:

- Normas armonizadoras. Se redujeron a cuatro normas, entre ellas se dijo que en territorio foral se mantendría una presión fiscal efectiva global equivalente a la del resto del Estado.
- IRPF. Las Diputaciones Forales, que hasta este momento disponían de una capacidad normativa muy limitada, pasaron a tener, prácticamente, plena capacidad normativa.
- Impuesto sobre Sociedades. El volumen total de operaciones para determinar la tributación exclusiva o compartida por este Impuesto se elevó a 500 millones de pesetas. Así mismo, la tributación consolidada de los grupos de sociedades quedó sometida a normativa foral cuando la sociedad dominante y todas las sociedades dependientes estuvieran sometidas a dicha normativa.
- Impuesto sobre el Valor Añadido. Al igual que en el Impuesto sobre Sociedades se estableció la cifra de 500 millones de pesetas para determinar la tributación exclusiva o compartida.
- Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. Se redujó de 10 a 5 años la exigencia de residencia en el País Vasco para poder aplicar la normativa foral.
- Impuesto sobre el Patrimonio. Las Diputaciones Forales pasaron a tener

foru-aldundiek.

- Aseguru-sarien gaineko Zerga. Hori ituntzeak ahalbidetu zien foru-aldundiei zerga hori ordainaraztea, Estatuak une bakoitzean ezarritako funtsezko eta erazko arauak aplikatuz.
- Zerga Bereziak. Zerga horiek tributu itunduak bihurtu ziren; ordu ezkeror, foru-aldundiek eska ditzakete EAEn sortzen bada horien zorra, baina araudi erkidearen pean segituko dute.
- Jokoaren gaineko Tasa. Arautegi autonomoko tributu itundua bihurtu zen; hala ere, arautegi erkidea izango zen aplikatzekoa zerga-egitateari eta subjektu pasiboari dagokienez.
- Ez-egoiliarak. Foru-aldundiek bildu beharrekotzat jo ziren ez-egoiliarrek ordaindu beharreko PFEZa, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetzen gaineko Zerga, euskal lurraldean sortutako zergapeko egitateengatik.

Azken finean, arautzeko ahalmena zabaldu zuen EAEk PFEZn, Ondarearen gaineko Zergan eta Jokoaren gaineko Tasan; eta, aldi berean, hainbat tributu kudeatzeko gaitasuna hedatu zuen. Horien artean aipatzekoak ziren Zerga Bereziak (Hidrokarburoak, Tabakoa eta Alkoholak) zerga-bilketan zeukaten garrantziagatik.

### 3. 2002KO EKONOMIA ITUNA

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzen duenak, ezarri zuen gaur egun indarrean dagoen Ekonomia Ituna.

Ekonomia Itun berriak, azken 20 urteetan jasotako eskarmentuarekin, 1981eko Itunaren printzipio, oinarri eta jarraibideei segitzen die. Hura aplikatzeko garaian segurtasun juridiko handiagoa lortzeko bideak sendotu dira eta epe mugagabea eman zaio, haren iraunkortasuna bermatzea helburu,

potestad normativa plena para regular este Impuesto.

- Impuesto sobre Primas de Seguros. Su concertación permitió a las Diputaciones Forales su exacción, aplicando las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.
- Impuestos Especiales. Estos Impuestos pasaron a ser tributos concertados, siendo exigibles por las Diputaciones Forales cuando su devengo se produzca en el País Vasco, si bien seguirán sujetos a normativa común.
- Tasa sobre el Juego. Pasó a ser un tributo concertado de normativa autónoma, aunque se aplicará la normativa común en lo relativo al hecho imponible y al sujeto pasivo.
- No residentes. Las Diputaciones Forales pasaron a recaudar el IRPF, el Impuesto sobre Sociedades, el Impuesto sobre el Patrimonio y el Impuesto sobre Sucesiones de los no residentes por los hechos imponibles devengados en el País Vasco.

En definitiva, el País Vasco extendió su potestad normativa en el IRPF, el Impuesto sobre el Patrimonio y la Tasa sobre el Juego y, a su vez, amplió su capacidad de gestión a varios tributos, entre los que destacaron por su significación recaudatoria los Impuestos Especiales (Hidrocarburos, Tabaco y Alcoholes).

### 3. CONCIERTO ECONÓMICO DE 2002

Con la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, se estableció el vigente Concierto Económico.

El nuevo Concierto, tras la experiencia acumulada en los últimos 20 años, sigue los mismos principios, bases y directrices que el Concierto de 1981, reforzándose los cauces tendentes a conseguir una mayor seguridad jurídica en su aplicación y confiriéndole un carácter indefinido, con el objeto de insertarlo en un marco estable que garantice su

esparru egonkor batean.

Adostutako testuak hobekuntza nabarmenak ditu eta aurrerapen handia dakar aurreko Itunaren aldean, bai alderdi teknikoen ikuspegitik, bai eskumen-banaketa-aren ikuspuntutik, bai finantza-harremanen esparruan.

Foru-ogasunen tributu-politikako erabakiak esparru judizialean ez ebazteko mekanismoak lortzea izan da helburu nagusia, eta, horretarako, lankidetzazko-prozedurak indartu dira.

Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzorde berriak aurreko Koordinazio Batzordearen lekua hartu du, eta bere egin ditu 2000. urtean Kupoaren Batzorde Mistoan adostutako ebaluazio-eginkizunak. Halaber, araugintza-proiektuak elkarri trukatzeko eta ebaluatzeko protokolo xehatua ezarri da. Horren helburua da administrazioen arteko akordioa lortzea, ustezko auzibide-gatazka saihesteko.

Bestalde, Arbitraje Batzordearen osaera arindu da; aurreko Itunean jasotzen zen Auzitegi Goreneko magistratu bati zegokiola Batzorde horretako buru izatea, baina bera ez zen sekula eratu. Egun, ordea, Batzorde horrek hiru kide ditu, itzal handiko adituak tributuen edo ogasunaren arloan.

Ekonomia Ituna Europar Batasuneko zerga-araubidean integratzeko, eta, bereziki, pertsonak kokatzeko askatasunaren oinarritzko printzipioa errespetatze aldera, konpondu egin ziren bai establezimendu iraunkorraren bidez ez-egoiliarrek lortutako errentak ordainarazteak sortzen zuen arazoa, bai pertsona fisiko ez-egoiliarrek PFEZn ordaintzeko aukerari lotutako arazoa. Gainera, Ondarearen gaineko Zergak betebeharrak errealagatik zergapetutako zerga-egitateak ordainarazteko, lotura-puntu berri bat finkatu zen, hain zuzen, aukerazko araubidea biltzen zuena.

Ekonomia Itun berriak ez du jaso euskal erakundeek uzia, hau da, partaidetza eraginkorra izatea nazioarteko erakundeetan (bereziki, Europar Batasunekoetan) Itunaren edukiri eta aplikazioari eragiten dieten gaiak

continuidad.

El texto acordado incorpora sustanciales mejoras y supone un avance considerable respecto al anterior Concerto, tanto en aspectos de carácter técnico como desde el punto de vista competencial, así como en el ámbito de las relaciones financieras.

La instrumentación de mecanismos que limiten la excesiva judicialización a la que se han sometido las decisiones de política tributaria de las Haciendas Forales ha sido un objetivo prioritario, profundizándose en los procedimientos de colaboración.

La nueva Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa absorbe a la anterior Comisión Coordinadora y las funciones evaluadoras que fueron acordadas en Comisión Mixta de Cupo en 2000, estableciendo un protocolo detallado de intercambio normativo y de evaluación de los respectivos proyectos, orientado a propiciar que las Administraciones alcancen un acuerdo que evite un eventual conflicto judicial.

Por otra parte, se procede a la simplificación de la composición de la Junta Arbitral, cuya presidencia se atribuía por el anterior Concerto a un Magistrado del Tribunal Supremo y que nunca llegó a constituirse, ahora integrada por tres miembros designados entre expertos de reconocido prestigio en materia tributaria o hacendística.

En cuanto al Concerto Económico y su incardinación en el contexto tributario de la Unión Europea, en particular en lo relativo al respeto del principio comunitario básico de libertad de establecimiento, se da solución a la problemática suscitada con la tributación de las rentas obtenidas por no residentes mediante establecimiento permanente y con la tributación de las personas físicas no residentes que puedan optar por la tributación en el IRPF. También, se ha establecido un nuevo punto de conexión para la exacción de los hechos imposables sujetos al IP por obligación real, mediante un régimen de opciones.

La pretensión de las Instituciones vascas de garantizar su presencia efectiva en los órganos internacionales, y en especial de la Unión Europea, en los que se traten materias que incidan en el contenido y aplicación del



aztertzen badituzte. Hala ere, partaidetzaren eztabaida sortu da, eta Ituna ez ezik, hainbat autonomia-erkidegok beste gai batzuk ere ekarri dituzte eztabaidara. Hori horrela, erantzun egokia eman behar zaio eztabaida horri, garai berriekin eta administrazioen arteko eskumen-banaketaekin bat datorren erantzuna.

Itunak berak, bigarren xedapen gehigarrian, hura zerga-sistemaren aldaketetara egokitzeko kasu berriak arautzen ditu; horrela, Estatuko Administrazioak eta EAeko administrazioek, adostasunez, Ekonomia Ituna egokituko dute, baldin eta aldaketa hauek gertatzen badira: antolamendu juridikoan berrikuntzaren bat gertatzen bada, eta berrikuntza horrek tributuen itunketari eragiten badio; araugintza-eskumenean banaketa aldatzen bada, eta aldaketak zeharkako zergapetzearen eremuari eragiten badio; eta tributuko figura edo konturako ordainketa berriren bat sortzen bada.

Ildo horretatik, nabarmendu egin behar da Estatuko Administrazioak Kupoaren Batzorde Mistoaren 2002ko martxoaren 6ko akordio bidez alor horretan hartutako konpromisoa: geroko Tributuen Lege Orokorrean Ekonomia Itunaren izaera berezia berriaz aitortzea bultzatu.

Konpromiso hori abenduaren 17ko 58/2003 Legean, Tributuen Lege Orokorrean, bete zen, bertako 1. artikulua arautzen baitu Lege horretan xedatutakoak ez duela bertan behera utziko Ekonomia Itunaren legeak araututakoa bete beharra.

Ekonomia Itun berriaren bidez lortutako akordioak areagotu egin zituen lurralde historikoetako erakundeei ordura arte Itunak aitortzen zizkien tributuko ahalmenak. Handitze hori, zenbait alderditan, indartu egin da urriaren 25eko 28/2007 Legearen bitartez (hain zuzen ere, lege horrek aldatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea); beste alderdi batzuetan, aldiz, Ituna Estatuaren tributuko araubideari erantsitako -ordura arte araubideari erantsi gabeko- zenbait tributuko neurritara egokitzea ekarri du handitze horrek.

Concierto Económico no ha tenido reflejo en la nueva redacción. Sin embargo, se ha abierto un debate, al que se han unido otras Comunidades Autónomas respecto de otras materias, y al que necesariamente habrá de procurarse una respuesta adecuada, acorde con los nuevos tiempos y la realidad del reparto competencial entre Administraciones.

En cuanto a las necesidades de adaptación del Concierto Económico, se extiende, conforme a la nueva redacción de la disposición adicional segunda, además de por la reforma en el ordenamiento jurídico tributario del Estado que afectase a los tributos concertados, a los casos en que se produzca en territorio común una alteración en la distribución de competencias normativas que afectase al ámbito de la imposición indirecta, la creación de nuevas figuras tributarias e, incluso, la creación de nuevos pagos a cuenta.

En este ámbito, ha de subrayarse la asunción del compromiso contraído por la Administración del Estado, contenido en los acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo de 6 de marzo de 2002, para promover un reconocimiento expreso de la especificidad del Concierto Económico en la futura Ley General Tributaria.

Este compromiso se vio materializado en la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria, cuyo artículo 1 determina que lo establecido en dicha Ley se entiende sin perjuicio de lo dispuesto en la ley que aprueba el Concierto Económico en vigor.

Los acuerdos alcanzados con el nuevo Concierto suponen una ampliación de las capacidades tributarias reconocidas hasta ese momento por el Concierto a las Instituciones de los Territorios Históricos. Ampliación que, en algunos aspectos, se ha visto reforzada mediante la Ley 28/2007, de 25 de octubre, por la que se modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, mientras que en otros, ha supuesto adaptar el Concierto a determinadas medidas tributarias incorporadas al ordenamiento jurídico tributario del Estado, y que a la fecha, no se habían incorporado.

28/2007 Legearen bidez Ekonomia Itunean egindako aldaketa 2007ko uztailaren 30eko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartutako akordioetatik sortu zen.

Besteak beste, 28/2007 Legearen bitartez zazpi milioi eurora igo da egoitza fiskaleko irizpideei buruzko araugintza- eta ordainarazpen-eskumenak administrazioei egozteko mugatzat jotako eragiketa-bolumen adierazgarria. Ordu arte, sei milioi euroan zegoen kopuru hori. Aurretik, 500 milioi pezetatik sei milioi eurora igo zen kopuru hori, eta igoera horrek foru-araubidearen mendeko sozietateen kopurua nabarmen handitzea ekarri zuen, dela Sozietateen gaineko Zergan, dela Balio Erantsiaren gaineko Zergan. Igoera horrek hori ekarri bazuen, zazpi milioirainoko zenbateko berriarekin, sozietate-kopuru hori gehitu behar da ezinbestean.

Bestalde, foru-ogasunei eman zaie Estatuko erakunde autonomoetako eta enpresa-entitate publikoetako funtzionario eta langileen ordainsarien atxikipenak ordainarazteko eskumena, lehen Estatuko Administrazioari zegokiona. Garrantzikoa da honako hau aipatzea: 28/2007 Legeak ezartzen duenez, erakunde autonomoren bat edo enpresa-entitate publikoren bat juridikoki estatu-agentzia bihurtzen denean, eskumen-araubide hori aplikatuko da.

Zeharkako zergapetzearen eremuan, araugintza-ahalmena egotzi zaie foru-ogasunei Garraibide Jakin batzuen gaineko Zerga Bereziaren karga-tasak gehienez % 15eraino igotzeko (28/2007 Legea indarrean sartu arte % 10 zen), araubide erkideko autonomia-erkidegoei egotzitako baldintza berdinetan, eta beste bi zerga itundu dira: alde batetik, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergari dagokionez, lurralde-oinarriko lotura-puntua eta zerga-tasaren tarte autonomikoan arautzeko ahalmena finkatu dira; eta, bestetik, Ikatzaren gaineko Zerga Berezia, azkeneko hori 28/2007 Legearen bitartez itundua.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, entitate-taldeari buruzko araubide berri bat sartzeak araubide berri hori arautzen duten

La modificación del Concierto Económico realizada por la Ley 28/2007 surge de los acuerdos adoptados por la Comisión Mixta del Concierto de 30 de julio de 2007.

Así, mediante la Ley 28/2007 se ha aumentado a 7 millones de euros la cifra de volumen de operaciones relevante para atribuir las competencias normativas y de exacción sobre el criterio del domicilio fiscal, que estaba situada en 6 millones de euros. Si el aumento a 6 millones de euros de los 500 millones de pesetas anteriores supuso una ampliación considerable del número de sociedades sometidas a la jurisdicción tributaria foral en el Impuesto sobre Sociedades y en el Impuesto sobre el Valor Añadido, con el nuevo importe de 7 millones dicho número de sociedades debe incrementarse.

Por otra parte, se asigna a las Haciendas Forales la competencia para la exacción de las retenciones de trabajo correspondientes a las retribuciones de los funcionarios y empleados de Organismos Autónomos y entidades públicas empresariales del Estado, antes atribuidas a la Administración del Estado. Es importante señalar, que la Ley 28/2007 establece que cuando se produzca una transformación jurídica de algún organismo autónomo o entidad pública empresarial en agencia estatal será de aplicación dicho régimen competencial.

En el ámbito de la imposición indirecta, se atribuye capacidad normativa a las Haciendas Forales para elevar hasta un máximo del 15% (hasta la Ley 28/2007 el porcentaje era del 10%) los tipos de gravamen del Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte, en iguales términos a los atribuidos a las Comunidades Autónomas de régimen común, y se ha procedido a la concertación de dos nuevos impuestos, el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, fijando un punto de conexión de base territorial y la capacidad normativa en el llamado tramo autonómico del tipo de gravamen, y el Impuesto Especial sobre el Carbón, éste último concertado mediante la Ley 28/2007.

En lo que respecta al Impuesto sobre el Valor Añadido, la introducción de un nuevo régimen del grupo de entidades obliga a recoger las



arau bereziak jasotzera behartu du.

Aipatzekoa da kudeatzeko zailtasunek eragotzi egin dutela lotura-puntu berriak sortzea bai pertsona juridikoen ibilgailuen Aseguru-Sarien gaineko Zerga ordainarazteko orduan, bai eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien pean dauden produktuen inportazioari berdinetsitako eragiketei aplikatu beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko orduan ere. Bi kasu horietan, Kupoaren Batzorde Mistoaren akordio bidez sortutako lan-taldeen ondorioei jarraitzen zaie.

Finantzen arloan, urratsak egin dira Ekonomia Itunaren izaera orokorra aitortzeko, eta neutraltasuna bermatu da kupoaren zenbatekoa zehazteko.

Autonomia Estatutuak eta Ekonomia Itunak ez zuten adierazten nola antolatu behar zen EAEko erakundeen finantza-jarduera osoa, hain zuzen ere, erakunde horien eta Estatuko Ogasunaren arteko harremani dagokienez. Gainera, zalantzan jarri izan dira 1906ko abenduren 13ko Errege Dekretuaren 15. artikulua foru-aldundiei aitortutako ahalmenak, nahiz eta 1981eko Ituneko eta 2002ko Ituneko hirugarren xedapen gehigarriak berriaz arautzen duen horiek indarrean dirautela.

Ziurgabetasuneko egoera horri aurre egiteko, Ekonomia Ituneko II. Kapituluari, finantza-harremanak arautzen dituenari, Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza-harremanak arautzeko oinarri orokorrak erantsi zaizkio. Finantza-harremanek printzipio hauek izango dituzte oinarri: autonomia, elkartasuna, koordinazioa eta lankidetzaren Estatuarekin aurrekontu-egonkortasun gaitan. Aldi berean, Ekonomia Itunaren Batzorde Misto berriari atxikitzen zaio gai horretan lankidetzaren eta koordinaziorako konpromisoak adosteko gaitasuna.

Bestalde, Kupoaren Batzorde Mistoak 2002ko martxoaren 6an hartutako akordioetan, bi xedapen hauen testua aldatzeko konpromisoa hartu zuen Estatuko Administrazioak: batetik, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorraren Osagarria den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoko azken xedapenetako lehena, eta, bestetik, Aurrekontu

reglas especiales que regulan el mismo.

También, señalar que dificultades de gestión han impedido fijar nuevos puntos de conexión aplicables a la exacción del Impuesto sobre las Primas de Seguros en los casos de vehículos de las personas jurídicas, así como en el Impuesto sobre el Valor Añadido para la exacción de las operaciones asimiladas a la importación de los productos sujetos a los Impuestos Especiales de Fabricación, remitiéndose a las conclusiones de grupos de trabajo que se crean mediante sendos acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo.

En materia financiera, se ha avanzado en el reconocimiento del carácter general del Concierto Económico y se ha preservado la neutralidad en el nuevo señalamiento del importe del cupo.

No existía referencia alguna, ni en el Estatuto de Autonomía ni en el propio Concierto Económico, al modo en que debía articularse el ejercicio global de la actividad financiera del País Vasco en sus relaciones con la Hacienda del Estado y, también, se ponía en entredicho la virtualidad en esta materia de las facultades reconocidas a las Diputaciones Forales por el artículo 15 del Real Decreto de 13 de diciembre de 1906, cuya vigencia es declarada de forma expresa por la disposición adicional tercera, tanto del Concierto de 1981 como del Concierto de 2002.

Para evitar esta situación, en el texto pactado, al Capítulo II, relativo a las relaciones financieras, se han incorporado los principios generales que deben regir estas relaciones entre el Estado y el País Vasco, basadas en los principios de autonomía, solidaridad, coordinación y colaboración con el Estado en materia de estabilidad presupuestaria, al mismo tiempo que se asigna a la nueva Comisión Mixta del Concierto Económico la facultad de acordar compromisos de colaboración y coordinación en esta materia.

Por otra parte, en los acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo de 6 de marzo de 2002 se recoge el compromiso de la Administración del Estado para promover una nueva redacción de la disposición final primera de la Ley Orgánica 5/2001, de 13 de diciembre, Complementaria de la Ley General de Estabilidad Presupuestaria, así como de la

Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorraren azken xedapenetako bigarrena. Azken horien testu berriaren arabera, foru-araubideak xedatutakoa betez, aipatutako legeotan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzerakoan, Ekonomia Ituneko Legeak xedatutakoari erreparatuko zaio.

Azkenik, finantza-neutraltasunaren helburua lortu da. Ez dira aldatzen errenta egozteko indizeak eta kontsumoari eta zergak biltzeko ahalmenari buruzko indizeak, zeharkako zergapetzearen doikuntzetan aplikagarriak; ezta Fabrikazio Zerga Bereziak ituntzean ezarritako finantza-konpentsazioak ere.

2002rako finkatutako kupoaren zenbatekoan sartzen da foru-aldundiek Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga berriagatik bildutakoa, bai eta Estatuko funtzionario eta langileen atxikipenengatik bildutakoa ere. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusitik jasotzen ari ziren kopuruak murriztu egin dira, eta kupoaren erregimen orokorrean sartu da osasun eta gizarte-zerbitzuen esparruetako eskumenen eta Ertzaintzaren finantzaketa.

2002ko Ekonomia Itunak, bigarren xedapen gehigarrian, ezartzen du hainbat baldintza gertatuz gero, bi administrazioek Ekonomia Ituna egokituko dutela, elkarrekin ados jarrita eta bera onartzeko erabilitako bide bera jarraituz.

Ildo berean, maiatzaren 23ko 12/2002 Legea onetsiz geroztik zenbait berrikuntza izan ziren Estatuaren tributu-ordenamendu juridikoaren alorrean, eta horrek Ekonomia Ituna egokitzea ekarri zuen. Adibidez, entitateen multzoaren erregimena sartu zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudian; araugintza-eskumenak handitu ziren Zenbait Garraiobidearen gaineko Zerga Berezian eta Zenbait Hidrokarbuoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergan; Ikatzen gaineko Zerga sartu zen Estatuaren tributu-sisteman; eta profesionalei, nekazariei eta abeltzainei, kasu batzuetan, Hidrokarbuoen gaineko Zerga itzultzea txertatu zen.

disposición final segunda de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre, General de Estabilidad Presupuestaria, con el siguiente contenido: "En virtud de su régimen foral, la aplicación a la Comunidad Autónoma del País Vasco de lo dispuesto en esta Ley, se atenderá sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley del Concierto Económico".

Por último, el objetivo de neutralidad financiera pretendido se ha cumplido. Se mantienen en los mismos términos los índices de imputación de renta y los relativos al consumo y capacidad recaudatoria, aplicables en los ajustes a la imposición indirecta, además de las compensaciones financieras establecidas en la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación.

En la cantidad fijada como cupo para 2002 se entiende incluida la recaudación por las Diputaciones Forales del nuevo Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos y de las retenciones de funcionarios y empleados estatales antes comentada. Se reduce su importe en las cuantías que venían recibiendo de la Tesorería General de la Seguridad Social, incorporándose al régimen general de cupo la financiación de las competencias en materia de sanidad y servicios sociales, así como la de Policía Autónoma.

En el Concierto Económico de 2002 se prevén, en su disposición adicional segunda, diferentes circunstancias por las que se procederá por ambas Administraciones, de común acuerdo y por el mismo procedimiento seguido para su aprobación, a la pertinente adaptación del Concierto Económico.

En este sentido, desde la aprobación de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, se produjeron una serie de novedades en el ordenamiento jurídico tributario del Estado que requirieron la adaptación del Concierto. Tal fue el caso de la introducción del régimen del grupo de entidades en la normativa reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido, del incremento de las competencias normativas en el Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte y en el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, de la introducción en el sistema tributario estatal del Impuesto sobre el Carbón y de la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos a profesionales,

Era berean, komenigarri jo zen Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen arteko lankidetzaren hobetzea Nazioarteko Itunak betetzeko informazioa trukatzearen arloan; horretarako, beste atal bat erantsi zitzaion Ekonomia Ituneko 4. artikuluari.

Bestalde, Ekonomia Ituneko seigarren xedapen gehigarriak jasotzen du 14., 15., 19. eta 27. artikuluetan aipatutako eragiketakopurua bost urtean behin edo sarriago eguneratuko dela, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak beren beregi hartuko dituen akordioen bidez. Horregatik, eragiketakopurua eguneratu zen, zazpi milioi euroan.

Beraz, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30ean Madrilen egin zuen 1/2007 bileran, bi administrazioek, adostasunez, Ekonomia Ituna aldatzeko erabakia hartu zuten, bera onartzeko jarraitutako bide bera erabiliz. Horrela onetsi zen urriaren 25eko 28/2007 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatu zuena.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30ean Madrilen egin zuen 1/2007 bileran, bi administrazioek, adostasunez, Ekonomia Ituna aldatzeko erabakia hartu zuten, bera onartzeko jarraitutako bide bera erabiliz.

Horregatik, Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoaren 1/2014 saioan, Madrilen 2014ko urtarrilaren 16an egindakoan, bi administrazioek Kontzertu Ekonomikoa aldatzea adostu dute, onartzeko jarraitutako prozedura bera erabiliz.

Jarraian, indarrean dagoen Ekonomia Itunak jasotako tributuen xedapenen berri emango da; zehazki, lurralde historikoetako erakunde eskudunek haiek arautzeko eta ordainarazteko duten ahalmena eta tributuen lotura-puntuak adieraziko dira, tributuz

agricultores y ganaderos en determinados supuestos.

Así mismo, se consideró conveniente perfeccionar la colaboración entre el Estado y las Instituciones del País Vasco en materia de intercambio de información para el cumplimiento de los Tratados Internacionales, mediante la adición de un nuevo apartado al artículo 4 del Concierto.

Por otro lado, en la disposición adicional sexta del Concierto se determina que la cifra del volumen de operaciones, al que se refieren sus artículos 14, 15, 19 y 27, sea actualizada por acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico, al menos cada cinco años. Por este motivo se procedió a la actualización de dicho volumen de operaciones, cifrándolo en 7 millones de euros.

Por ello, en la sesión de la Comisión Mixta del Concierto Económico 1/2007, celebrada en Madrid el 30 de julio de 2007, ambas Administraciones adoptaron de común acuerdo la modificación del Concierto Económico, con arreglo al mismo procedimiento seguido para su aprobación. De esta forma fue aprobada la Ley 28/2007, de 25 de octubre, por la que se modifica la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Desde la citada modificación del Concierto, acordada en la Comisión Mixta de Concierto Económico de 30 de julio de 2007, se han producido otras novedades en el ordenamiento tributario que hacen necesaria la adecuación del Concierto, tal y como exige la disposición adicional segunda del mismo.

Por ello, en la sesión de la Comisión Mixta del Concierto Económico 1/2014, celebrada en Madrid el 16 de enero de 2014, ambas Administraciones adoptaron de común acuerdo la modificación del Concierto Económico, con arreglo al mismo procedimiento seguido para su aprobación.

Más adelante se repasan para cada tributo las disposiciones del Concierto Económico vigente en lo que respecta a la capacidad normativa y exaccionadora de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos y

tributu.

#### **4. EAE-K TRIBUTUAK ARAUTZEKO ETA ORDAINARAZTEKO DUEN GAITASUNA ETA TRIBUTU BAKOITZAREN LOTURA-PUNTUAK**

Lurralde historikoetako erakunde eskudunen tributu-ahalmenak arautzen ditu Ekonomia Ituneko 1. artikulua:

##### Tributuak arautzeko ahalmena.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, bakoitzak bere lurraldean, tributu-araubidea mantendu, ezarri eta arau dezakete.

Beraz, lurralde historikoetako erakunde eskudunek tributuak arautzeko ahalmena dute, eta ahalmen hori erabiltzen dute tributu-sistema propioa sortzeko, tributu itundu bakoitzerako foru-arauek emanez. Hala ere, Itunak berak tributu-sistemen garapen harmonikoa bermatzen du, eta tributu-sistemen artean arau-loturak egiten.

##### Ordainarazteko ahalmena.

Foru-aldundiei dagokie lurralde historikoetako tributu-sistemako tributuen ordainarazpen-prozesua, fase guztietan: ordainarazpena, kudeaketa, likidazioa, ikuskapena, berrikuspena eta diru-bilketa.

Beraz, foru-aldundiek autonomia osoa dute tributuak kudeatzeko, eta ahalmen hori ez da eskuordetua, berezkoa baitute. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu beharko ditu egindako tributu-kudeaketaren ondorioak, bai positiboak, bai negatiboak. Ildo horretan, Ituneko lehenengo artikuluren 3. paragrafoak arautzen du lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuko Ogasun Publikoaren ahalmen eta eskubide berak izango dituztela itundutako zergak kudeatu, ikuskatu, berrikusi eta biltzeko.

Bestalde, honako eskumen hauek Estatuarenak bakarrik dira: Zerga Berezien eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren barruan, inportatzeko eskubideak eta

tributuak kudeatzeko eskubideak eta

#### **4. CAPACIDAD NORMATIVA Y EXACCIONADORA DEL PAÍS VASCO EN MATERIA TRIBUTARIA Y PUNTOS DE CONEXIÓN**

En el Concierto Económico se recogen (artículo 1) las potestades tributarias de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos:

##### Capacidad normativa tributaria.

Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario.

Por lo tanto, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos poseen la potestad normativa en materia tributaria, dando lugar a la correspondiente normativa foral para cada tributo concertado, configurando un sistema tributario propio. Ello no es obstáculo para que el propio Concierto garantice el desarrollo armónico de los distintos sistemas tributarios con las correspondientes conexiones normativas.

##### Capacidad exaccionadora.

Corresponderá a las respectivas Diputaciones Forales el proceso exaccionador, en todas sus fases, de los tributos que integran el sistema tributario de los Territorios Históricos: exacción, gestión, liquidación, inspección, revisión y recaudación.

Por tanto, las Diputaciones Forales disponen de plena autonomía de gestión tributaria, con potestad propia y no cedida. De ello se deriva que la Comunidad Autónoma soporte las consecuencias, positivas o negativas, de su propia gestión tributaria. En este sentido, el apartado tres del artículo uno del Concierto atribuye, además, a las Instituciones competentes de los Territorios Históricos las mismas facultades y prerrogativas en cuanto a la gestión, inspección, revisión y recaudación de los tributos concertados que a la Hacienda Pública del Estado.

Por otra parte, constituirán competencias exclusivas del Estado la regulación, gestión, inspección, revisión y recaudación de los derechos de importación y de los gravámenes

inportazio-kargak arautzea, kudeatzea, ikuskatzea, berraztertzea eta biltzea (5. artikulua).

Era berean, Estatuari dagokio Ekonomia Ituna betetzen den begiratzea, goi-mailako ikuskaritzaren bidez. Horretarako, eginkizun hori duten Estatuko organoek, urtero, betebeharrak horren emaitzak azaltzeko txosten bat egin behar dute, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien laguntzarekin.

Behin tributu-esparruan eskumenen banaketa zehaztu eta gero, Itunak harmonizaziorako beharrezko arau batzuk zerrendatzen ditu eta tributu bakoitzerako lotura-puntuak zehazten ditu; lotura-puntu horiek arautzen dute tributu-administrazioen jardura hiru alderdi hauetatik:

- Araudia aplikatzeko lotura-puntua. Zerga-egitate bakoitzari aplikatu beharreko arautegia (erkidea edo forala) eta, hala balegokio, arautzeko ahalmenaren mugak.
- Ordainarazpenerako lotura-puntua. Tributu kudeatzeko ahalmena duen tributu-administrazioa.
- Ikuskapenerako lotura-puntua.

#### **4.a. Harmonizaziorako printzipio nagusiak**

Lurralde historikoetako tributu-sistemak Itunean bertan zerrendatzen diren printzipio nagusiak bete beharko ditu (2. artikulua): Konstituzioan zehaztutako elkartasun printzipioa, Estatuko zergen egitura orokorra kontuan izatea, koordinazioa, tributu-sistemen harmonizazioa eta elkarrekiko lankidetzaren sustatzea, Estatu espainiarrak izenpetuta eta berretsita dituen edo gerora izenpetzen eta berresten dituen nazioarteko tratatuetan edo hitzarmenen menpe egotea. Era berean, Tributu Lege Orokorrean tributu-arauak ulertzeko ezarritakoaren bidetik ulertu behar dira Ekonomia Ituneko arauak.

Halaber, Ekonomia Itunean definitzen dira lurralde historikoetako zerga-sistemak kontuan hartu beharreko harmonizazio fiskalerako arauak (3. artikulua) eta lankidetzaren printzipioa (4. artikulua). Desberdinak dira printzipio horiek, batzuek

a la importación en los Impuestos Especiales y en el IVA (artículo 5).

Así mismo, corresponderá al Estado, la alta inspección de la aplicación del Concierto Económico, a cuyo efecto los órganos del Estado encargados de la misma emitirán anualmente, con la colaboración del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales, un informe sobre los resultados de la referida aplicación.

Una vez determinado el reparto competencial en el ámbito tributario, el Concierto enumera una serie de necesarias normas de armonización y define los denominados puntos de conexión para cada tributo, que regulan el campo de actuación de las Administraciones tributarias desde tres vertientes:

- Punto de conexión normativo. Normativa de aplicación a cada hecho imponible (común o foral) y, en su caso, limitaciones a la capacidad normativa.
- Punto de conexión para la exacción. Administración tributaria competente para la gestión del tributo.
- Punto de conexión para la inspección.

#### **4.a. Principios generales de armonización**

El sistema tributario de los Territorios Históricos debe respetar los principios generales (artículo 2) que se enumeran en el propio Concierto: principio constitucional de solidaridad, atención a la estructura general impositiva del Estado, coordinación, armonización fiscal y colaboración mutua, así como sometimiento a los Tratados o Convenios Internacionales firmados por el Estado español o a los que éste se adhiera. Del mismo modo, las normas del Concierto se interpretarán de acuerdo con lo establecido en la Ley General Tributaria para la interpretación de las normas tributarias.

En el Concierto Económico se definen, también, las normas de armonización fiscal (artículo 3) y el principio de colaboración (artículo 4) a tener en cuenta por los sistemas tributarios de los Territorios Históricos. Estos principios tienen diferente

harmonizazio-arau zehatza zehazten dute, eta beste batzuk, berriz, izaera orokorreko harmonizazio-printzipioak dira. Gainera, Estatuaren eta lurralde historikoen arteko lankidetzaren printzipioa ezartzen da, tributuen alorreko arauak egiteko proiektuen berri emateko eta zergak kudeatu, ikuskatu eta biltzeko.

### Tributuak harmonizatzea.

Zerga-arauak sortzeko orduan, lurralde historikoek:

- Tributuen Lege Orokorraren arabera egokitu behar dituzte terminologia eta kontzeptuak, Ekonomia Itunean ezarritako berezitasunak kontuan hartu behar badira ere.
- Benetako presio fiskal orokorra Estatuko gainerako lekuetan dagoenaren parean mantendu behar dute.
- Espainiako lurralde osoan pertsonen joan-etorri askea eta pertsonak kokatzeko askatasuna errespetatu eta bermatu behar dira, baita ondasunen, kapitalen eta zerbitzuen joan-etorri askea ere. Ezin da bazterketarik gertatu; ezin dira enpresen lehiazko aukerak murriztu; eta ezin da baliabideen asignazioan distorsiorik eragin.
- Jardueren sailkapenak direla-eta, abeltzaintza, meatzaritza, industria, merkataritza, zerbitzu, lanbide eta arte arloetan, lurralde erkidean erabiltzen den sailkapen berbera erabili behar dute, nahiz eta sailkapen zehatzagoa egiteko aukera eduki.

Printzipio horietako batzuk orokorrak izanda, horien aplikazio praktikoa ere orokorra izan behar du. Osterantzean, desberdina den foru-erakundeetako tributu-arau oro printzipio orokor horien aurkakotzat jo liteke, arau erkideko aldeak txikiak izan arren; ondorioz, arau erkideak hertsiki betetzera behartuta izan litezke foru-erakundeak. Horrek, noski, bertan behera utziko luke Ekonomia Itunaren baliozkotasuna.

Tributu-sistemak harmonizatzeak ez du esan nahi sistemek berdinak izan behar dutenik; aitzitik, printzipio komun orokor batzuk onartzea dakar sistema fiskal bat baino gehiago izatea ahalbidetzeko. Hori bai,

alcançe, unos determinan una norma de armonización concreta y otros invocan principios de armonización de carácter general. Además, se establece un principio de colaboración entre el Estado y los Territorios Históricos en orden a la comunicación de los proyectos de disposiciones normativas en materia tributaria y a la gestión, inspección y recaudación de los tributos.

### Armonización fiscal.

Los Territorios Históricos en la elaboración de la normativa tributaria:

- Se adecuarán a la Ley General Tributaria en cuanto a terminología y conceptos, sin perjuicio de las peculiaridades establecidas en el Concierto Económico.
- Mantendrán una presión fiscal efectiva global equivalente a la existente en el resto del Estado.
- Respetarán y garantizarán la libertad de circulación y establecimiento de las personas y la libre circulación de bienes, capitales y servicios en todo el territorio español, sin que se produzcan efectos discriminatorios, ni menoscabo de las posibilidades de competencia empresarial ni distorsión en la asignación de recursos.
- Utilizarán la misma clasificación de actividades ganaderas, mineras, industriales, comerciales, de servicios, profesionales y artísticas que en territorio común, sin perjuicio del mayor desglose que de las mismas pueda llevarse a cabo.

Ha de entenderse que el carácter general de algunos de estos principios exige que su aplicación práctica tenga también ese mismo carácter. De otro modo, toda disposición tributaria foral diferenciada, por pequeña que fuere esa diferencia, podría considerarse contraria a alguno de estos principios, limitando a las Instituciones competentes de los Territorios Históricos a transcribir la normativa común y, por tanto, negando toda virtualidad al propio Concierto Económico.

La armonización de los sistemas tributarios no ha de interpretarse como sinónimo de uniformización, su significado supone aceptar unos principios comunes generales que, respetando la autonomía de cada parte,



partaide bakoitzaren autonomia errespetatuz, eta jarduera ekonomikoaren garapena eraldatu gabe.

Ildo horretatik, argigarriak dira Kupoaren Batzorde Mistoak 2000ko urtarrilaren 18an hartutako akordioak. Horiek diote lankidetzainarri hauek aintzat hartzen dituzten arauak izango direla harmonizazio fiskaleko printzipioetara egokituak (nolanahi ere, bete egin beharko dira Ekonomia Ituneko xedapenak):

- Erakunde eskudunek araututako neurri fiskalek egokiak izan behar dute politika ekonomikoko helburuak lortzeko.
- Tributu-administrazioek ez dute beste administrazioentzat kaltegarriak izan daitekeen neurri fiskalik hartuko, ezta proposatuko ere.

#### Lankidetz-printzipioa.

Hainbat modutan gauzatzen da Estatuaren eta lurralde historikoen arteko lankidetzaz; esaterako, datuak prozesatzeko zentroen bidez informazioa trukatzuz; helburu, sektore eta hautapen-prozesu koordinatuei buruzko ikuskaritza-plan bateratuak prestatuz; eta tributuen arloko arauak egiteko proiektuak elkarri emanez, haiek indarrean jarri baino nahikoa denbora lehenago. Halaber, nazioarteko akordioek Ekonomia Ituna betetzeko orduan inolako eraginik baldin badute, akordio horietan Euskadiko erakundeek lankidetzaz ahalbidetzeko behar diren baliabideak jarriko ditu Estatuak.

Era berean, Estatuak eta Euskadiko erakundeek informazioa elkarren artean trukatzeko prozedurak adostuko dituzte, Estatuak sinatuta dituen nazioarteko tratatu eta hitzarmenak, eta, berariaz, administrazio-lankidetzari eta elkarren arteko laguntzari buruz Europar Batasunak emandako arautegia era egokian beteko direla bermatuta gera dadin. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek arteko lankidetzaren hobekuntza hori, hain zuzen ere, 28/2007 Legearen bidez sartu da.

Lankidetz-printzipio horren esparruan, aipatzekoak dira, halaber, 2002ko Ituneko III. kapitulua sortu izana eta Kupoaren

permitan la coexistencia de los sistemas fiscales, sin que ello distorsione el desarrollo de la actividad económica.

En este sentido, pueden resultar aclaratorios los Acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo de 18 de enero de 2000 que establecen que, sin perjuicio de lo previsto en el Concierto Económico, se considerará adecuada a los principios de armonización fiscal la normativa que se adapte a las siguientes bases de cooperación:

- Las medidas fiscales reguladas por las Instituciones competentes serán adecuadas a los objetivos de política económica perseguidos en cada caso.
- Las Administraciones tributarias se abstendrán de adoptar y proponer medidas fiscales potencialmente perjudiciales para las otras Administraciones.

#### Principio de colaboración.

La colaboración entre el Estado y los Territorios Históricos se articula a través de distintos ámbitos: intercambio de información a través de sus Centros de Proceso de Datos, preparación de planes de inspección conjuntos sobre objetivos, sectores y procedimientos selectivos coordinados e intercambio, con suficiente antelación a su entrada en vigor, de los proyectos de disposiciones normativas en materia tributaria. También, se prevé la colaboración de las Instituciones del País Vasco en los Acuerdos Internacionales en los aspectos que incidan en la aplicación del Concierto Económico, para lo cual el Estado arbitrará los mecanismos que lo permitan.

Asimismo, se establece que el Estado y las Instituciones del País Vasco arbitrarán los procedimientos de intercambio de información que garanticen el adecuado cumplimiento de los Tratados y Convenios internacionales del Estado y, en particular, de la normativa procedente de la Unión Europea en materia de cooperación administrativa y asistencia mutua. Este perfeccionamiento en la colaboración entre el Estado y las Instituciones del País Vasco ha sido introducido mediante la Ley 28/2007.

En el marco de este principio de colaboración y de su refuerzo han de inscribirse, también, la creación de un nuevo Capítulo III en el

Batzorde Mistoak 1999ko uztailaren 14an hartutako akordioak. III. kapitulu horrek arautzen ditu Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eta Arbitraje Batzordearen osaera, ahalmenak eta akordioak hartzeko moduak. Geroago ere aztertuko dira.

#### **4.b. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga itundutako tributua da, eta araudi autonomoaren pean dago. Lurraldearen arabera, eskumena daukan foru-aldundiari dagokio tributu hori ordainaraztea, baldin eta subjektu pasiboaren ohiko bizilekua Euskadin badago (6. artikulua).

Lotura-puntua, beraz, subjektu pasiboaren ohiko bizilekua da, eta Itunak berak ezartzen du ohiko bizilekua Euskadin dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren (43. artikulua):

- Lurralde horretan zergaren ezarraldiko egun gehien ematea; hori zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan. Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela pentsatuko da bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu.
- Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-irabaziak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean –profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere.
- Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

Familia-unitate bereko subjektu pasiboek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan baldin badaukate eta tributua batera ordaintzea erabakitzen badute, likidazio-oinarri handiena

Concierto de 2002, en el que se desarrollan la composición, facultades y acuerdos de la Comisión Mixta del Concierto Económico, la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa y la Junta Arbitral, así como los acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo de 14 de julio de 1999, que más adelante se comentan.

#### **4.b. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas**

El Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas es un tributo concertado de normativa autónoma y su exacción corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el contribuyente tenga su residencia habitual en el País Vasco (artículo 6).

El punto de conexión es, por tanto, la residencia habitual del sujeto pasivo, estableciendo el propio Concierto que la residencia habitual se considerará en el País Vasco cuando así se entienda de la aplicación sucesiva de las siguientes reglas (artículo 43):

- Permanencia en dicho territorio un mayor número de días del período impositivo, computándose, a estos efectos, las ausencias temporales. Salvo prueba en contrario, se considerará que una persona física permanece en territorio vasco cuando radique en él su vivienda habitual.
- Cuando tengan en este territorio su principal centro de intereses, donde obtenga la mayor parte de la base imponible del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, excluyéndose, a estos efectos, las rentas y ganancias patrimoniales derivadas del capital mobiliario, así como las bases imputadas en el régimen de transparencia fiscal, excepto el profesional.
- Cuando sea éste el territorio de su última residencia declarada a efectos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Cuando los contribuyentes integrados en una unidad familiar tuvieran su residencia habitual en territorios distintos y optasen por la tributación conjunta, se entenderá



duen kidearen ohiko bizilekuko lurraldeko Administrazioak izango du eskumena; likidazio-oinarria kasuan kasuko lurraldeko arauari jarraituz kalkulatu da.

Espainiako lurraldean bizi diren pertsona fisikoek kasuan, urte naturalean zehar ez badute lurralde horretan ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago egiten, Euskadiko lurraldean bizi direla joko da bertan baldin badute enpresa- edo lan-jardueren edo interes ekonomikoek gune nagusia edo oinarria.

Dena delako pertsona fisikoak Espainian bizi dela uste baldin bada, ezkontidearekin legez banandu gabe dagoelako eta ezkontideak eta haren mende dauden adin txikiko seme-alabek ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean dutelako, pertsona fisiko horrek ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean daukala joko da.

Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da. Subjektu pasiboek zerga-egoitzaren aldaketak bi administrazioei jakinarazi behar dizkiete, baldin eta egoitzaren aldaketak honako zerga ordainarazteko eskumenean aldaketaren bat badakar. Zergaren aitortzea aurkeztea nahikoa izango da jakinarazpen hori egiteko.

Hala ere, bizilekua aldatzearen helburu nagusia tributu gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriorik edukiko. Bizileku berria jarraian emandako denbora gutxienez hiru urtez luzatzen den kasuetan izan ezik, Pertsona Fisikoek Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako, aldaketarik ez dela izan pentsatuko da ondorengo inguruabarrak gertatzen badira:

- Bizilekua aldatzen den urtean edo hurrengoan, Pertsona Fisikoek Errentaren gaineko Zergaren ezarpen-oinarria aldaketaren aurreko urtean izandako ezarpen-oinarria baino % 50 handiagoa izatea, gutxienez.
- Egoera hori sortzen den urtean, Pertsona Fisikoek Errentaren gaineko Zergaren ondoriozko tributazio efektiboa aldaketa izan aurreko lurraldean aplikatu beharreko araudiarekin gertatuko litzatekeen

competente la Administración del territorio donde tenga su residencia habitual el miembro de dicha unidad con mayor base liquidable, calculada conforme a su respectiva normativa.

Las personas físicas residentes en territorio español que no permanezcan en dicho territorio más de 183 días durante el año natural, se considerarán residentes en el territorio del País Vasco, cuando en el mismo radique el núcleo principal o base de sus actividades empresariales o profesionales o de sus intereses económicos.

Cuando se presuma que una persona física es residente en el territorio español, por tener su residencia habitual en el País Vasco su cónyuge no separado legalmente y los hijos menores de edad que dependan de aquél, se considerará que tiene residencia habitual en territorio vasco.

Se entenderán domiciliados fiscalmente en el País Vasco las personas físicas que tengan en él su residencia habitual. Los contribuyentes están obligados a comunicar a ambas Administraciones los cambios de domicilio fiscal que originen modificaciones en la competencia para exigir este Impuesto. Esta comunicación se entenderá producida por la presentación de la declaración del Impuesto.

No obstante, no producirán efecto los cambios de residencia que tengan por objeto principal lograr una menor tributación efectiva. Se presumirá, salvo que la nueva residencia se prolongue de manera continuada durante, al menos, tres años, que no ha existido cambio, en relación al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el Impuesto sobre el Patrimonio, cuando concurren las siguientes circunstancias:

- Que en el año en el que se produce el cambio de residencia o en el siguiente, la base imponible del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas sea superior en, al menos, un 50% a la del año anterior al cambio.
- Que en el año en el cual se produzca dicha situación, la tributación efectiva por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas sea inferior a la que hubiese correspondido con la normativa aplicable

tributazio efektiboa baino txikiagoa izatea.

- Ohiko bizilekua berriz ere hasierako lurraldean edukitzea a) letran azaldutako egoera sortzen den urtearen hurrengoan, edo horren hurrengoan.

Aldi berean, Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza-aldaketa eragin ahal izango du.

Zergaren sorrera finkatzeko, konturako ordainketen lotura-puntuak ere zehazten ditu Itunak. Hartzailearen errentaren gaineko zerga likidatzeko orduan, lurralde batean zein bestean egin diren konturako sarrerek balioko dute, ordainketa horiek egin edo sartu diren lurraldeari begiratu gabe (12. artikulua). Hauek dira alderdi nagusiak:

Laneko etekinak direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak (7. artikulua).

Honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

- a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago.

- b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubideetan hartzen diren pentsio, hartzeko pasibo eta prestazioen etekinak, Enpleguaren Nazio Erakundetik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko fondoetatik, pentsio planetatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak, baita enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak ere, baldin eta hartzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

- c) Administrazio-kontseilu, ordezeko batzorde eta beste ordezkartza-organo batzuetako administratzaile eta kideen ordainsariak, ordaindu behar duen erakundearen zerga-egoitza Euskadin baldin badago.

del territorio de residencia anterior al cambio.

- Que en el año siguiente a aquel en el que se produce la situación la letra a) o en el siguiente, vuelva a tener residencia habitual en dicho territorio.

A su vez, el cambio de domicilio del contribuyente se podrá promover por cualquiera de las Administraciones.

El Concierto determina, así mismo, los puntos de conexión de los pagos a cuenta en la fuente del Impuesto. Es preciso subrayar que éstos tienen validez a los efectos de la liquidación del Impuesto del perceptor, con independencia del territorio donde hayan sido practicados e ingresados (artículo 12). Los aspectos más significativos son:

Retenciones e ingresos a cuenta por rendimientos del trabajo (artículo 7).

Se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Diputación Foral competente por razón del territorio, cuando correspondan a rendimientos procedentes de:

- a) Trabajos y servicios que se presten en el País Vasco.

Cuando los trabajos o servicios se presten en ambos territorios, se presumirá, salvo prueba en contrario, que los servicios se prestan en el País Vasco, cuando en este territorio se ubique el centro de trabajo al que esté adscrito el trabajador.

- b) Pensiones, haberes pasivos y prestaciones percibidas de los Regímenes Públicos de la Seguridad Social y Clases Pasivas, Instituto Nacional de Empleo, Montepíos, Mutualidades, Fondos de Promoción de Empleo, Planes de Pensiones, Entidades de Previsión Social Voluntaria, así como las prestaciones pasivas de Empresas y otras Entidades, cuando el perceptor tenga su residencia habitual en el País Vasco.

- c) La condición de administradores y miembros de los Consejos de Administración, de las Juntas que hagan sus veces y de otros órganos representativos, cuando la entidad pagadora tenga su domicilio fiscal en el País Vasco.

Estatuak eta foru-aldundiek eska dezaketen Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo diren erakundeen kasuan, bi administrazioei dagokie atxikipenak egitea, bakoitzari bere lurraldean burututako eragiketen guztizkoaren proportzioan. Horretarako, Sozietateen gaineko Zergarako azken aitorten-likidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da.

Atxikipenok foru-arautegiarekin edo arautegi erkidearekin bat etorritz eskatuko dira, erakunde ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergari buruz aplikatzea dagokion arautegiaren arabera. Eskumena daukan administrazioko organoek egingo dute ikuskapena, irizpide beraren arabera.

Honako atxikipen hauek Estatuko Administrazioak eskatuko ditu: Estatuko funtzionarioek eta lan-legepeko nahiz administrazio-legepeko langileek jasotzen dituzten ordainsarien gainekoak, ordainsari horiek aktiboak nahiz pasiboak izan, jasotzailea ez den beste batek sortutako pentsioak barne. Erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionario eta langileak, ordea, kanpo geratzen dira.

#### Konturako ordainketak, ekonomia-jardueren etekinen zioz (8. artikulua).

Lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bakoitzak bere arautegia kontuan hartuta, atxikipena egitera edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak ohiko bizilekua edo zerga-egoitza Euskadin badu. Nolanahi ere, Estatuko Administrazioak eta foru-aldundiek bakoitzak berak ordaindutakoen etekinenak eskatuko dituzte.

Atxikipen eta konturako sarrera horiek ordainarazteko, lurralde erkidean aplikatutako tasa berberak aplikatuko dituzte foru-aldundiek.

#### Higigarrien kapitalaren etekinak direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak (9. artikulua).

Estatuko administrazioak edo foru-aldundi eskudunak eskatuko ditu, bakoitzak bere arautegia kontuan hartuta, honako arau hauen arabera:

Tratándose de sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades exigible por el Estado y las Diputaciones Forales, la retención corresponderá a ambas Administraciones en proporción al volumen de operaciones efectuado en cada territorio, aplicándose la proporción determinada en la última declaración-liquidación.

Estas retenciones se exigirán conforme a la normativa foral o común, según normativa del Impuesto sobre Sociedades que a la entidad le resulte aplicable. La inspección se realizará por la Administración que corresponda en aplicación de este mismo criterio.

Se exigirán por la Administración del Estado las retenciones por retribuciones, tanto activas como pasivas, incluidas las pensiones generadas por persona distinta del perceptor, satisfechas por aquélla a los funcionarios y empleados en régimen de contratación laboral o administrativa del Estado, excepto los funcionarios y empleados de Organismos Autónomos y entidades públicas empresariales.

#### Pagos a cuenta por rendimientos de actividades económicas (artículo 8).

Se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el obligado a retener o a ingresar a cuenta tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco. En cualquier caso se exigirán por la Administración del Estado o por las respectivas Diputaciones Forales cuando correspondan a rendimientos por ellas satisfechos.

En la exacción de estas retenciones e ingresos a cuenta las Diputaciones Forales aplicarán idénticos tipos a los de territorio común.

#### Retenciones e ingresos a cuenta por rendimientos del capital mobiliario (artículo 9).

Se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Administración del Estado o por la Diputación Foral competente por razón del territorio las correspondientes a:

a) Edozein erakunderen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak, baita obligazio eta antzeko tituluetakoko korrituak zein bestelako kontraprestazioak ere, etekin horiek ordaintzen dituzten erakundeek Sozietateen gaineko Zerga Euskadin bakarrik ordaintzen dutenean.

b) Autonomia Erkidegoak, foru-aldundiek, udalek eta Euskadiko lurralde-administrazioko eta erakunde-administrazioko beste enteek jaulkitako zor eta jesapenetako korritu eta bestelako kontraprestazioak, edozein tokitan ordainduta ere. Estatuak eskatuko ditu, ordea, Estatuak berak, beste autonomia-erkidego batzuek, lurralde erkideko korporazioek eta Estatuak lurralde-administrazio eta erakunde-administrazioko bestelako enteek egindako jaulkipenei dagozkienak, baita euskal lurraldean ordaintzen badira ere.

c) Banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba eta balio bereko erakundeetako eragiketa pasiboetako korrituak eta gainerako kontraprestazioak, baita beste edozein kreditu-etxetan edo finantza-etxetan egindakoetatik lortutakoak ere, baldin eta etekinaren hartzaileak Euskadin badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza.

d) Kapitalizazio-eragiketetatik eta bizitza- edo elbarritasun-aseguruen kontratuetatik lortutako etekinak, baldin eta horien onuradunak, edo aseguru-hartzaileak, erreskatearen kasuan, Euskadin badu ohiko bizilekua edo zerga-egoitza.

e) Kapital-ekarpenetik datozen bizi arteko errentak eta aldi baterako beste batzuk ere bai, onuradunak ohiko bizilekua edo zerga-egoitza Euskadin baldin badauka.

Pentsioen kasuan, eskubidea sortu zuena ez baldin bada gaur egun pentsio hori jasotzen duena eta ordaintzen duena Estatuak Administrazioa baldin bada, atxikipena Estatuak eskatuko du.

f) Jabetza intelektualetik lortutako etekinak, subjektu pasiboa egilea ez bada; eta industria-jabetzatik eta laguntza teknikoak ematek lortutakoak, ordaintzen dituen pertsona edo erakundeak zerga-egoitza

a) Rendimientos obtenidos por la participación en fondos propios de cualquier entidad, así como los intereses y demás contraprestaciones de obligaciones y títulos similares, cuando tales rendimientos sean satisfechos por entidades que tributen exclusivamente por el Impuesto sobre Sociedades en el País Vasco.

b) Intereses y demás contraprestaciones de las deudas y empréstitos emitidos por la Comunidad Autónoma, las Diputaciones, Ayuntamientos y demás Entes de la Administración territorial e institucional del País Vasco, cualquiera que sea el lugar en el que se hagan efectivas. Los que correspondan a emisiones realizadas por el Estado, otras Comunidades Autónomas, Corporaciones de territorio común y demás entes de sus Administraciones territoriales e institucionales, aún cuando se satisfagan en territorio vasco, serán exigidas por el Estado.

c) Los intereses y demás contraprestaciones de operaciones pasivas de los Bancos, Cajas de Ahorro, Cooperativas de Crédito y entidades equiparadas a las mismas, así como de las efectuadas en cualquier otro establecimiento de crédito o institución financiera, cuando el perceptor del rendimiento tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

d) Los rendimientos derivados de operaciones de capitalización y de contratos de seguros de vida o invalidez, cuando el beneficiario de los mismos o el tomador del seguro en caso de rescate tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

e) Las rentas vitalicias y otras temporales que tengan por causa la imposición de capitales, cuando el beneficiario de los mismos tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

Quando se trate de pensiones cuyo derecho hubiese sido generado por persona distinta del perceptor y el pagador sea la Administración del Estado, la retención será exigida por ésta.

f) Los rendimientos procedentes de la propiedad intelectual, cuando el sujeto pasivo no sea el autor y, en todo caso, los de la propiedad industrial y de la prestación de asistencia técnica, cuando la persona o

Euskadin baldin badauka.

g) Ondasun, eskubide, negozio, meatze eta antzekoak alokatzetik datozenak, Euskadin baldin badaude.

Higiezinak hipotekatuz bermatutako maileguen korrituen kasuan, berme modura erabiltzen diren ondasunak dauden lurraldeko administrazioak izango du atxikipena eskatzeko eskumena.

Hipotekatutako ondasunak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean baldin badaude, bi administrazioei dagokie atxikipena eskatzea. Horretarako, korrituak hainbanatu egingo dira hipotekatutako ondasunen balioaren proportzioan, berme-asignazio berezirik ez badago behinik behin. Halakorik badago, kopuru hori erabiliko da hainbanatzeko oinarri modura.

Higigarrien hipoteka bidez edo eskualdaketarik gabeko bahitura bidez bermatutako maileguetako korrituen kasuan, bermea inskribatzen duten lurraldeko administrazioak eskatuko du atxikipena.

Mailegu soilen korrituen kasuan, salerosketan ordaintzekotan utzitako prezioen kasuan eta kapitalak inon sartzeagatik lortutako beste etekin batzuen kasuan, establezimendua dagoen lurraldeko administrazioak edo atxikipena egiteko betebeharra duen erakunde edo pertsonak ohiko bizilekua edo zerga-egoitza duen lurraldeko administrazioak eskatuko du atxikipena.

Atxikipen eta konturako sarrera horiek ordainarazteko, lurralde erkidean aplikatzen diren tasa berberak aplikatuko dituzte foru-aldundiek.

Atxikipenak eta konturako sarrerak, zenbait ondare-irabaziren zioz.

Talde-inbertsioko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean lortzen diren ondare-irabaziei dagozkien atxikipenak, akziodun edo partaidearen ohiko bizilekua edo zerga-egoitza non dagoen, Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere arautegia betez.

entidad que los satisfaga se halle domiciliada fiscalmente en el País Vasco.

g) Los procedentes del arrendamiento de bienes, derechos, negocios o minas y análogos, cuando estén situados en territorio vasco.

Cuando se trate de intereses de préstamos garantizados con hipoteca inmobiliaria, será competente para exigir la retención la Administración del territorio donde radiquen los bienes objeto de la garantía.

Cuando los bienes hipotecados estuvieran situados en territorio común y vasco, corresponderá a ambas Administraciones exigir la retención, prorrateándose los intereses proporcionalmente al valor de los bienes objeto de hipoteca, salvo en el supuesto de que hubiese especial asignación de garantía, en cuyo caso será esta cifra la que sirva de base para el prorrateo.

Cuando se trate de intereses de préstamos garantizados con hipoteca mobiliaria o prenda sin desplazamiento, la retención se exigirá por la Administración del territorio donde la garantía se inscriba.

Ello derivó en los acuerdos alcanzados en la Comisión Mixta de Cupo del 18 de enero de 2000. En ellos se reitera el apoyo al Concierto Económico y el compromiso a desarrollar cuantas actuaciones sean de su competencia para su mejor defensa en el ámbito interno como en el ámbito internacional.

Estos acuerdos se elaboraron desde una doble perspectiva. En primer lugar se realizó un análisis pormenorizado de las materias impugnadas en cada uno de los recursos interpuestos, con el fin de alcanzar puntos de encuentro que en el futuro eviten las posibles discrepancias. Este esfuerzo se justifica plenamente en razón de que la mayor parte de los recursos interpuestos por las distintas Administraciones se basa en una diferente interpretación de la armonización fiscal regulada en el propio Concierto.

Al margen de estos acuerdos, las Administraciones convienen, en segundo término, en adaptar determinada normativa tributaria foral y desistir de determinados recursos interpuestos por las mismas en esta materia. El desistimiento de estos recursos es

arauren indarraldia amaitu zelako -indarraldi-  
epea igarota edo gerora indargabetuta-, bai  
foru-araueak eta arau erkideak aldatu egin  
zirelako haiek eman eta Administrazioen  
arteko akordioak lortu bitartean.

2002ko Ekonomia Itun berriak aintzat hartu  
zituen lankidetzaren printzipioaren inguruko  
alderdiak, eta, berariaz, III. kapitulu berri bat  
sortu zuen, Ekonomia Itunaren batzordeei eta  
Arbitraje Batzordeari buruzkoa.

Era berean, Ekonomia Ituneko Batzorde  
Mistoak 2010eko azaroaren 22an hartutako  
akordioaren artean, Ekonomia Itunaren  
12/2002 Legearen 4. artikuluan  
aurreikusitako lankidetzako baliabideen  
alorrean, eta Ekonomiako Ministroen  
Europako Kontseiluarekin lotuta, Estatuaren  
Gobernuak konpromisoa hartu zuen zerga-  
gaiari buruzko informazioa bidaltzeko, batez  
ere zerga itunduei eragiten badiete eta  
Ekonomiako Ministroen Europako Kontseiluan  
aztertu behar badira.

Halaber, Estatuaren Gobernuak hitzeman du  
bideak ezarriko dituela Euskal Autonomia  
Erkidegoak zuzenean parte har dezan  
Ekonomiako Ministroen Europako  
Kontseiluaren lan-taldeetan parte hartzen  
duten Estatuaren ordezkarietan parte hartuz,  
Ekonomia Itunaren alorreko gaiak aztertzen  
baldira badira. Horretarako, Euskal Autonomia  
Erkidegoko erakundearen ordezkari bat deituko  
du Estatuak D-4 (zerga-zioak), D-5  
(jokabide-kodea) eta D-8 (iruzurraren  
aurkako lana) lan-taldeetako bileratan parte  
hartzeko.

### **5.a. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa**

Lehen Kupoaren Batzorde Mistoa zena  
Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa izatera  
pasa da (61. artikulua), eta berriz zehaztu  
dira haren eginkizunak. Batzorde berria,  
aurreko Kupoaren Batzorde Mistoa  
moduan, honela eratzen da: batetik,  
foru-aldundi bakoitzeko ordezkari bana eta  
Eusko Jaurlaritzako ordezkariak,  
aldundietako ordezkarien kopuru berean;  
eta, bestetik, Estatuko Administrazio-  
ko ordezkariak, aurrekoen kopuru osoaren  
zenbateko berean.

consecuencia, entre otras razones, de la  
pérdida de vigencia de ciertas normas -bien  
por su carácter temporal o bien porque se  
haya producido su derogación posterior- y la  
evolución de las normativas común y foral  
desde su promulgación hasta este momento  
de los acuerdos.

El nuevo Concierto Económico de 2002 recoge  
esta sensibilidad, relacionada con el principio  
de colaboración, creando un nuevo Capítulo  
III, de las Comisiones y Junta Arbitral del  
Concierto Económico.

En este mismo sentido, entre los acuerdos de  
la Comisión Mixta del Concierto Económico de  
22 de noviembre de 2010, en el marco de los  
mecanismos de colaboración previstos en el  
artículo 4 de la Ley 12/2002 del Concierto, y  
en relación con el Consejo Europeo de  
Ministros de Economía (ECOFIN) el Gobierno  
del Estado se compromete a remitir  
información sobre las cuestiones tributarias,  
especialmente aquellas que afecten a los  
tributos concertados, que sean objeto de  
tratamiento en el Consejo ECOFIN.

Así mismo, el Gobierno del Estado se  
compromete a establecer los cauces para que  
el País Vasco participe directamente  
integrando la delegación del Estado en los  
grupos de trabajo del ECOFIN, cuando  
conozca de asuntos vinculados al ámbito  
material propio del Concierto Económico. En  
este sentido se convocará a un representante  
de las Instituciones del País Vasco a las  
reuniones de los grupos de trabajo D-4  
Cuestiones tributarias, D-5 Código de  
conducta y D-8 Lucha contra el fraude.

### **5.a. Comisión Mixta del Concierto Económico**

La anterior Comisión Mixta de Cupo pasa a  
denominarse Comisión Mixta del Concierto  
Económico (artículo 61), redefiniendo sus  
funciones. Esta nueva Comisión, al igual que  
la anterior, estará constituida, de una parte,  
por un representante de cada Diputación  
Foral y otros tantos del Gobierno Vasco, y de  
otra, por un número igual de representantes  
de la Administración del Estado. Sus acuerdos  
deberán adoptarse por unanimidad de todos

Batzordekideek aho batez hartu behar dituzte erabakiak.

Eginkizun hauek izango ditu Batzorde Mistoak:

- a) Ekonomia Itunaren aldarazpenak erabakitzea.
- b) Aurrekontu-egonkortasunaren arloko lankidetzaren eta koordinazioari buruzko konpromisoak erabakitzea.
- c) Bosturteko bakoitzean kupoaren ezartzeko metodologia erabakitzea.
- d) Arbitraje Batzordeko kideen izendapena eta araubidea erabakitzea, baita Batzordearen jardunbideari, biltzeko deialdiei, bilerei eta erabakiak hartzeko araubideari dagokiena ere.
- e) Zerga- eta finantza-gaiei buruz uneko bakoitzean hartu beharreko erabakiak hartzea, Itunean ezarritakoa behar bezala aplikatu eta gara dadin.

### **5.b. Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea**

1981. urteko Itunak (40. artikulua) Batzorde Koordinatzailea eratu beharra arautu zuen, eta Kupoaren Batzorde Mistoak 2000ko urtarrilaren 18an lortutako Akordioen ondorioz, Araugintza Ebaluatzeko Batzordea eratu zen.

Bestalde, Kupoaren Batzorde Mistoak, 1999ko uztailaren 14an egindako bileran, honako erabaki hauek hartu zituen, lankidetzaren printzipioaren esparruan: foru-arauen proiektuak, lege-proiektuak eta eduki fiskaleko erregelamenduak Administrazioen artean trukatzeko; eta, horrez gain, trukaketa horiek egiteko epeak zehaztu ziren.

Ekonomia Itun berriak bi batzordeak batu zituen, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzorde berria eratuta. Honako hauek osatuko dute Batzordea: Estatuko Administrazioaren lau ordezkariak, eta Autonomia Erkidegoaren beste lau ordezkariak (Eusko Jaurlaritzak izendatutakoak) lau horietatik hiru foru-aldundiek proposatuko dituzte, bakoitzak bana.

Eginkizun hauek izango ditu Batzordeak:

sus miembros integrantes.

Las funciones que tiene atribuidas son las siguientes:

- a) Acordar las modificaciones del Concierto Económico.
- b) Acordar los compromisos de colaboración y coordinación en materia de estabilidad presupuestaria.
- c) Acordar la metodología para el señalamiento del cupo en cada quinquenio.
- d) Acordar el nombramiento y régimen de los componentes de la Junta Arbitral, así como lo referente a su funcionamiento, convocatoria, reuniones y adopción de acuerdos.
- e) Todos aquellos acuerdos que en materia tributaria y financiera resulten necesarios en cada momento para la correcta aplicación y desarrollo de lo previsto en el Concierto.

### **5.b. Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa**

El Concierto de 1981 estableció la creación (artículo 40) de la Comisión Coordinadora y los Acuerdos alcanzados en la Comisión Mixta de Cupo de 18 de enero de 2000 supusieron la formación de la Comisión de Evaluación Normativa.

Por otra parte, en la Comisión Mixta de Cupo de 14 de julio de 1999, en el marco del principio de colaboración, se acordó el intercambio entre Administraciones en plazos determinados de los Proyectos de Norma Foral y de los Proyectos de Ley, así como de normas reglamentarias, de contenido fiscal.

El nuevo Concierto Económico integra ambas comisiones, creando la nueva Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa. Ésta estará compuesta por cuatro representantes de la Administración del Estado y otros cuatro representantes de la Comunidad Autónoma designados por el Gobierno Vasco, tres de los cuales lo serán a propuesta de cada una de las respectivas Diputaciones Forales.

Esta Comisión tiene atribuidas las siguientes funciones:



a) Zergen arloko arauak Ekonomia Itunari egokitzen zaizkion aztertzea, argitaratu aurretik. Horrela, euren araugintza-proiektuak elkarri erakusten dizkietenean, inork oharren bat egiten badu, Batzordean ordezkariak dituzten Erakunde eta Administrazioetako edozeinek Batzordearen bilerarako deialdia egin ahal izango du, proposatutako araudia Itunarekin bat datorren aztertzeo, araua argitaratu baino lehen, desadostasunik balego akordioa lor dezaten.

b) Itunean aipatutako lotura-puntuen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Ebazpen-proposamenari buruz inork oharren bat egiten badu, araugintza Koordinatzeko eta Ebaluatzeo Batzordearen bilerarako deia egingo da berriz, eta batzorde horrek akordiorik lortzen ez badu, Arbitraje Batzordeari helaraziko zaio.

c) Egoki irizten diren azterlanak egitea araubide autonomikoa eta Estatuko marko fiskala zuzen uztartzeko, egituraren eta eginkizunen esparruan.

d) Administrazio eskudunei euren jardunak elkarri egokitzeko irizpideak, planak eta informatikako programak eskaintzea, eta lankidetzaren eta informazio-trukearen printzipioa benetan gauza dadin erabili behar diren tresnak, bitartekoak, prozedurak edo metodoak antolatu.

e) Ikuskapen-gaietan Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean sortutako auziak edo arazoak aztertzea, baita zergen ondoretarako egindako balorazioen inguruko arazoak ere.

f) Txostenak egitea Ogasun Ministerioari, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako ogasun-sailei eta Arbitraje Batzordeari, hala eskatuz gero.

g) Ekonomia Ituna aplikatzearekin eta betearaztearekin zerikusia duten beste eginkizun guztiak.

### **5.c. Arbitraje Batzordea**

1981eko Itunean Arbitraje Batzordea eratu beharra arautu bazen ere, ez zen halakorik egin, baina Itun berriak Batzorde horren osaera, eginkizunak eta erabaki-eremua zehazten ditu, 65., 66. eta 67. artikuluetan.

a) Evaluar la adecuación de la normativa tributaria al Concierto Económico con carácter previo a su publicación. Así, cuando en el intercambio de proyectos de disposiciones normativas se efectuasen observaciones, cualquiera de las Instituciones y Administraciones representadas podrá solicitar la reunión de esta Comisión para analizar la adecuación de la normativa propuesta al Concierto y propiciar, con anterioridad a su publicación, un acuerdo sobre las discrepancias existentes en relación al contenido de la normativa tributaria.

b) Resolver las consultas que se planteen sobre la aplicación de los puntos de conexión contenidos en el Concierto. Caso de existir observaciones a las propuestas de resolución, se convocará la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa, que, de no llegar a un acuerdo, la trasladará a la Junta Arbitral.

c) Realizar los estudios que estimen procedentes para una adecuada articulación estructural y funcional del régimen autonómico con el marco fiscal estatal.

d) Facilitar a las Administraciones competentes criterios de actuación uniforme, planes y programas de informática y articular los instrumentos, medios, procedimientos o métodos para la materialización efectiva del principio de colaboración y del intercambio de información.

e) Analizar los supuestos o cuestiones que se hayan planteado en materia de inspección entre la Administración del Estado y las respectivas Diputaciones Forales, así como los problemas de valoración a efectos tributarios.

f) Emitir los informes que sean solicitados por el Ministerio de Hacienda, los distintos Departamentos de Hacienda del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales y la Junta Arbitral.

g) Cualquier otra relacionada con la aplicación y ejecución del Concierto Económico.

### **5.c. Junta Arbitral**

Tras la fallida Junta Arbitral prevista en el Concierto de 1981 el nuevo Concierto determina su nueva composición, funciones y acuerdos (artículos 65, 66 y 67).

Arbitraje Batzordea osatuko duten hiru kideak zenbait adituren artean hautatu dituzte; aditu horiek hamabost urte baino gehiagoko eskarmentua izango dute zergen edo ogasunaren arloan. Horien izendapena Ogasun Ministroak eta Herri Administrazio sailburuak formalizatuko dute; sei urterako izendatuko dira.

Arbitraje Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo horien eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai zerga itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Eskumen-gatazkarik sortzen bada, auziko Administrazioek interesatuei jakinaraziko diete; horrek eten egingo du preskripzio-epea, eta hortik aurrera Administrazio horiek ez dute inongo jarduerarik egingo. Gatazkak ebazteko prozedura arau bidez ezarriko da. Prozedura horretan, interesatuei entzun egingo zaie.

Halaber, Eskumenak direla-eta gatazkaren bat sortzen denean, harik eta hura ebatzi arte, gatazka horren xede diren zergadunak zergapetzen zituen Administrazioak bere eskumenaren mende atxikiko ditu zergadunok; nolana ere, Arbitraje Batzordeak erabakitakoa ikusita, tributuen arloko zuzenketak eta konpentsazioak egin ahal izango dira, tributuen arloko foru berria betearazi behar den egunera arteko atzeraeraginarekin.

Los tres integrantes de la Junta Arbitral serán designados entre expertos de reconocido prestigio con más de quince años de ejercicio profesional en materia tributaria o hacendística. Su nombramiento se formalizará por el Ministro de Hacienda y el Consejero de Hacienda y Administración Pública para un periodo de seis años.

La Junta Arbitral tiene atribuidas las siguientes funciones:

a) Resolver los conflictos que se planteen entre la Administración del Estado y las Diputaciones Forales o entre éstas y la Administración de cualquier otra Comunidad Autónoma, en relación con la aplicación de los puntos de conexión de los tributos concertados y la determinación de la proporción correspondiente a cada Administración en los supuestos de tributación conjunta por el Impuesto sobre Sociedades o por el Impuesto sobre el Valor Añadido.

b) Conocer de los conflictos que surjan entre las Administraciones interesadas como consecuencia de la interpretación y aplicación del Concierto Económico a casos concretos concernientes a relaciones tributarias individuales.

c) Resolver las discrepancias que puedan producirse respecto a la domiciliación de los contribuyentes.

Cuando se suscite el conflicto de competencias, las Administraciones afectadas lo notificarán a los interesados, lo que determinará la interrupción de la prescripción y se abstendrán de cualquier actuación ulterior. Los conflictos serán resueltos por el procedimiento que reglamentariamente se establezca en el que se dará audiencia a los interesados.

Asimismo, hasta tanto sea resuelto el mismo, la Administración que viniera gravando a los contribuyentes en cuestión continuará sometiéndolos a su competencia, sin perjuicio de las rectificaciones y compensaciones tributarias que deban efectuarse entre las Administraciones, retrotraídas a la fecha desde la que proceda ejercer el nuevo fuero tributario, según el acuerdo de la Junta Arbitral.

Arbitraje Batzordeak indarreko zuzenbide-arauak betez ebatziko ditu espedienteetako auzi guztiak, exekuzio-formulak barne, auzi horiek gatazkako alderdiek edo interesatuek aurkeztu dituzten aintzat hartu gabe; eta ebazpenetan ekonomia-, arintasun- eta eraginkortasun-printzipioei jarraituko die. Arbitraje Batzorde horrek hartutako erabakiak betearazpen-indarra badute ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoak baino ezingo dira jarri horien aurka, Auzitegi Goreneko jurisdikzio horretako salan.

Ekonomia Itunaren eta lotura-puntuen aplikazioaren interpretazioaren eta aplikazioaren ondorioz sortzen diren gatazkak eta desadostasunak ebaztea ahalbidetuko duen prozedura adosteko asmoz, Itunaren Arbitraje Batzordeak, 2007ko uztailaren 30eko akordioaren bitartez, prozedura horren edukia adostu zuen. Akordio hori, hain zuzen ere, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Araudia onartzen duenean, gauzatu zen.

Araudi hori aldatzea beharrezko den kasuetan, tarteko diren bi administrazioen arteko akordioz egin beharko da aldaketa hori.

Arbitraje Batzordearen funtzionamendu-, antolaketa- eta prozedura-arauak finkatzeaz gain, prozedura arautzen duten arauak ere finkatzen dira, honako arlo hauetan: hasiera, izapidetzea, ebazpena, jakinarazpena eta ebazpenen betearazpena, bai eta haien aurkaratzea ere.

## **6. EUSKAL OGASUNAREN ANTOLAKETA ETA ERAKETA**

### **6.a. Alderdi orokorrak**

Autonomia Estatutuaren 40. artikulua arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoak ogasun autonomo bat izango duela, bere eskumenak erabiltzeko eta finantzatzeko; horretarako, lurralde historikoetako foru-aldundiei ahalmena ematen die dagozkien zergak ordainarazteko, kudeatzeko, kitzatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko.

La Junta Arbitral resolverá conforme a derecho, de acuerdo con los principios de economía, celeridad y eficacia todas las cuestiones que ofrezca el expediente, hayan sido o no planteadas por las partes o los interesados en el conflicto, incluidas las fórmulas de ejecución. Sus acuerdos, sin perjuicio de su carácter ejecutivo, serán únicamente susceptibles de recurso en vía contencioso-administrativa ante la Sala correspondiente del Tribunal Supremo.

Con objeto de acordar el procedimiento que permita resolver los conflictos y discrepancias que surjan como consecuencia de la interpretación y aplicación del Concierto Económico y de la aplicación de los puntos de conexión, la Comisión Mixta del Concierto mediante acuerdo de 30 de julio de 2007 consensuó su contenido que se vio materializado en el Real Decreto 1760/2007, de 28 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de la Junta Arbitral prevista en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En aquellos supuestos en los que sea necesaria la modificación de dicho Reglamento deberá realizarse por acuerdo entre las dos Administraciones implicadas.

Además de fijar las normas de funcionamiento, organización y procedimiento de la Junta Arbitral, se fijan las normas reguladoras del procedimiento en lo referido a la iniciación, tramitación, resolución, notificación y ejecución de las resoluciones, así como a su impugnación.

## **6. ORGANIZACIÓN Y COMPOSICIÓN DE LA HACIENDA VASCA**

### **6.a. Aspectos generales**

El Estatuto de Autonomía establece (artículo 40) que para el adecuado ejercicio y financiación de sus competencias, el País Vasco dispondrá de su propia Hacienda Autónoma, otorgando a las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos la capacidad de exacción, gestión, liquidación, recaudación e inspección de los tributos concertados.

Horrela, bada, bi kontzeptu sortu ziren: Ogasun Orokorra eta Foru Ogasuna; biak berariaz jasota eta zehaztuta daude Lurralde Historikoen Legean (LHL). Bertan, Euskadiko Ogasun Orokorra, Autonomia Erkidegoko erakunde komunei dagokiena, eta Foru Ogasunak, lurralde historikoetako foru-organoei dagozkiena, bereizten dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, foru-ogasanak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetakoak dira.

Beste erakunde-maila bat ere bada, udal-eremuko toki-ogasunek osatutakoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa den apirilaren 2ko 7/1985 Legeak arautzen ditu. Lege horri indarrean jarrita, urrats handia eman zen Konstituzioa oinarritzat hartuta Estatuak abiatu zuen erakunde-eraketan. Gerora, Toki Ogasunak arautzekoa den abenduaren 28ko 39/1988 Legeak osatu egin zuen hura. Jarraian, lurralde historikoek nork bere lurraldeko toki-ogasunaren xedapen arautzaileak onartu zituzten, eta erakundeen arteko harreman-eredu antolatua eta integratua osatu zen.

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoa hiru mailatan egituratzen da:

a) Euskadiko Ogasun Orokorra.

Autonomia Estatutuak, Ekonomia Itunak, Lurralde Historikoen Legeak eta, hein batean, irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoak, Autonomia Elkarrekin Finantzatzeari buruzkoak (LOFCA) aitortzen dizkiote eskumenak. Euskadiko Ogasun Orokorren Printzipio Arautzaileen Legeak araututako erakundea da. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egiturari jarraitzen die; eta, ondorioz, Legebiltzarra eta Jaurlaritza ditu gobernu-organo, eta Legebiltzarrak aukeratzen du bertako lehendakaria.

b) Foru-ogasanak.

Ekonomia Itunak eta Lurralde Historikoen Legeak arautzen dituzte haien eskumenak. Lurralde historikoen egiturari jarraitzen die, eta gobernu-organo hauek ditu: Batzar Nagusiak, organo legegilea eta organo betearazlea kontrolatzeko eskumena dutena; eta Foru Aldundia, eta bertako Ahaldun Nagusia edo Presidenteak, Batzar Nagusiek

Se articulan de esta forma los conceptos de Hacienda General y Hacienda Foral, recogidos y delimitados perfectamente en la Ley de Territorios Históricos (LTH). En ella se distingue entre Hacienda General del País Vasco, correspondiente a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma, y Haciendas Forales, que se corresponden a los Órganos Forales de los Territorios Históricos. En el País Vasco, las Haciendas Forales son las de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

En otro escalón institucional se encuentran las Haciendas Locales, entidades de ámbito municipal reguladas por la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local. Esta Ley supuso un paso importante en la configuración institucional abordada por el Estado a partir de la Constitución, completada posteriormente por la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, Reguladora de las Haciendas Locales. Más tarde, los Territorios Históricos aprobaron las normas reguladoras de las Haciendas Locales de sus respectivos territorios, completando un modelo de relaciones institucionales estructurado e integrado.

Por tanto, la organización de la Comunidad Autónoma se estructura en tres niveles:

a) Hacienda General del País Vasco.

Sus competencias emanan del Estatuto de Autonomía, el Concierto Económico, la Ley de Territorios Históricos y en parte de la Ley Orgánica 8/1980, de 22 de septiembre, de Financiación de las Comunidades Autónomas (LOFCA). Está regulada por la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. Se corresponde con las Instituciones Comunes del País Vasco, que disponen como Órganos de Gobierno de un Parlamento y de un Ejecutivo, cuyo Lehendakari es elegido en el Parlamento.

b) Haciendas Forales.

Sus competencias se regulan en el Concierto Económico y en la Ley de Territorios Históricos. Se corresponden con los Territorios Históricos, que disponen como Órganos de Gobierno de las Juntas Generales, órgano legislativo y de control del ejecutivo, y de una Diputación Foral, cuyo Diputado General o Presidente es elegido por dichas

hautatua.

c) Toki Ogasunak.

Ekonomia Itunak berak eta toki-ogasunak arautzeko foru-arauek ezarritakoari jarraiki arautzen dira. Udalen egiturari jarraitzen diote; hau da, udalbatzak izaten dituzten eta azken horiek hautatzen dute alkatea edo udalburua.

Txosten honek hiru mailako erakunde-banaketa horri jarraitzen dio, EAEko Ogasunaren azterketa egiteko, 3., 4. eta 5. kapituluan.

## 6.b. Erakundeen arteko baliabide-banaketa

Finantza-jarduera hiru erakunde-mailatan banatuta egoteak berak eragiten du hiru maila horien artean finantza-fluxuak egotea. Ekonomia Itunaren kudeaketak sortutako diru-sarrerak hiru erakunde-mailen artean banatzen dira, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak araututakoari jarraiki. Azken lege horrek autonomia-erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoen foruzko jardute-erakundeen arteko harremanak arautzen ditu.

Lurralde historikoetako foru-ogasunek Euskadiko Ogasun Orokorrari ordaindu beharreko zenbatekoa Eusko Legebiltzarrak erabakitzen du lege bidez, aldezturik Herri Dirubideen Euskal Kontseiluarekin adostu ondoren; onartzen denak, gutxienez, hiru agintaldiko iraupena du, aurrekontuei dagokienez.

Bestalde, toki-ogasunek zerga itunduak eta ez-itunduak ere biltzen dituzte. 27/1983 Legearen 3. artikulua araututakoari jarraituz, Autonomia Erkidegoak aitortzen eta bermatzen du Euskadiko udalerriek autonomien autonomia interes pribatuak kudeatzeko eta beren baliabideak antolatzeko. Halaber, arau horren bigarren xedapen gehigarriak arautzen du EAEko udalerriek ez dutela araubide erkideak araututakoa baino baliabide-maila txikiagoa izango eta diru-hornidura bat izango dutela obra eta zerbitzuetako foru-planen aurrekontutik.

Juntas.

c) Haciendas Locales.

Reguladas por el propio Concierto Económico y las Normas Forales Reguladoras de las Haciendas Locales. Se corresponden con los Municipios, que disponen a su vez de unas Juntas Municipales y un Alcalde o Presidente elegido por dichas Juntas.

Esta distribución institucional en tres niveles es la que se sigue en el análisis de la gestión de la Hacienda Vasca en este Informe, en los capítulos 3, 4 y 5.

## 6.b. Distribución de recursos entre las Instituciones

La propia estructura institucional en tres niveles de la actividad financiera pública obliga a la existencia de flujos financieros entre niveles. Los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico se redistribuyen entre los distintos niveles institucionales de acuerdo con la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

La determinación de las aportaciones de las Haciendas Forales de los Territorios Históricos a la Hacienda General del País Vasco se aprueba mediante Ley del Parlamento Vasco previo acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas para períodos mínimos de tres ejercicios presupuestarios.

Por otra parte, las Haciendas Locales participan de la recaudación de los tributos concertados y no concertados. El artículo 3 de la Ley 27/1983 señala que la Comunidad Autónoma reconoce y garantiza la autonomía de los Municipios del País Vasco para la gestión de sus intereses privados y la administración de sus recursos. Así mismo, en su disposición adicional segunda determina que los Municipios tienen garantizado un nivel de recursos no inferior al que les correspondiere por aplicación de la legislación de régimen común, a la vez que se les dota presupuestariamente de los Planes Forales de Obras y Servicios.

Lurralde historikoetako foru-organismoek arrisku banatuaren irizpidea erabiltzen dute tokiko erakundeek urtero egin beharreko ekarpena sarrera itunduetan zenbatekoa izango den ezartzeko. Horrez gain, Dirubideen Euskal Kontseiluak gomendatzen die foru-organismoek beren mendean dauden toki-erakundeek, itundutako zergen bidez bildutakoaren partaidetza moduan, gutxienez % 50 ematea, kupoa eta ekarpenak kitatu ondoren. Toki-ogasunen finantziazio-iturri nagusia zerga itunduak dira; izan ere, lortzen duten kopuru osoaren ia erdia izaten baita.

Bigarren kapituluak xehekiro adierazten du zer irizpide erabili behar diren Ekonomia Ituna kudeaketaren bidez eskuratutako baliabideak erakundeen artean banatzeko.

## **7. EUSKADIKO ZERGA-KOORDINAZIORAKO ORGANOA**

Maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak, Zergapideen Elkar-egokitasuna, Erakidetasuna eta Lankidetasunari buruzkoak -gerora, 4/1998 Legeak zenbait aldaketa egin zizkion-, helburu hau zuen: lurralde historikoek zerga-eremuan jardutean erabili beharko dituzten irizpideak arautzea eta antolatzea.

Batetik, Autonomia Estatuaren 41.2.a) artikulua arautzen du lurralde historikoetako erakunde eskumendunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izan dutela beren lurraldean, Estatuaren zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako Ekonomia Itunak berak jasotako arauak jarraituz eta Eusko Legebiltzarrak arlo horretan eman ditzakeen arauak betez.

Ekonomia Ituneko 2. artikulua arautzen du lurralde historikoen zerga-sistemaren oinarriko printzipioetako bat izango dela lurralde historikoetako erakundeek beren jarduna koordinatzea, harmonizazio fiskala lortzea eta lankidetzan jardutea; betiere, Eusko Legebiltzarrak propio horretarako emandako arauak beteta.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eta bertako Lurralde Historikoen Foruzko Jardute-

Los Órganos Forales de los Territorios Históricos utilizan el criterio del riesgo compartido al establecer anualmente la participación de los Entes Locales en los ingresos concertados, destinando, a recomendación del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, a los Entes Locales de ellos dependientes, en concepto de participación en los tributos concertados, como mínimo el 50% de la recaudación una vez deducido el Cupo y las Aportaciones. La principal fuente de financiación de las Haciendas Locales es su participación en la recaudación de los tributos concertados, que supone casi la mitad del total de ingresos que obtienen.

En el Capítulo 2 se recoge una detallada exposición sobre los criterios de distribución institucional de los recursos derivados de la gestión del Concierto Económico.

## **7. EL ÓRGANO DE COORDINACIÓN TRIBUTARIA DE EUSKADI**

La Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, posteriormente modificada por la Ley 4/1998, responde a la necesidad de dar cuerpo legal y articular los principios que en materias tributarias deben regir la actuación de las Instituciones de los Territorios Históricos.

Por un lado, el artículo 41.2.a) del Estatuto de Autonomía señala como las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario, atendiendo a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado se contengan en el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para idénticas finalidades dentro de la Comunidad Autónoma.

Así mismo, el Concierto Económico en su artículo 2 establece como uno de los principios generales del sistema tributario de los Territorios Históricos la coordinación, armonización fiscal y colaboración entre las Instituciones de los Territorios Históricos según las normas que, a tal efecto, dicte el Parlamento Vasco.

La Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los



erakundeen arteko Harremani buruzko Legeak, Lurralde Historikoen Legea izenez ere ezagutzen denak, bere 14.3 artikuluan honako bi agindu hauek finkatzen ditu, gerora, sarri aipatuak. Batetik, foru-organo eskudunek, Ekonomia Itunak aitortzen dizkien ahalmen araugileak erabiltzean, modu uniforme arautu behar dituzte zergen funtsezko elementuak. Eta bestetik, Eusko Legebiltzarrak eman behar ditu lurralde historikoen arteko zerga-sistemaren harmonizazioa, koordinazioa eta lankidetzaz garatzeko arauak.

3/1989ko Legeak zenbait neurri arautu ditu, lurralde historikoetako erakunde eskumenak harmonizatzeko. Halaber, neurri horien bitartez, lurralde historikoetako zerga-sistemak ez uniformizatzen saiatu da. Lege horren artikuluek orokorrean zehazten dituzte zein gai harmoniza ditzakeen Eusko Legebiltzarrak; hau da, zein gaik eragin diezaiekeen zerga-tresnen funtsezko elementuei, gai horietan foru-erakundeek dituzten ahalmen araugileei erreparatua.

3/1989 Legeak Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoa ere eratu zuen. Organoaren eginkizuna aldundien arteko koordinazioa sustatzea da, zergak eraginkortasunez arautzeko eta kudeatzeko.

### **7.a. Eraketa, eginkizunak eta antolaketa**

Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoaren eratzeko, erakunde komunak eta lurralde historikoen arteko harremanen harian sortutako beste organo batzuk eratzeko egitura paritaria erabili da. Ogasuneko eta Finantzetako sailburuak hiru ordezkari izendatzen ditu, eta horietako bat Organoko presidentea izango da. Halaber, foru-aldundiek ordezkari bana dute Organo horretan.

Maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak arautzen ditu Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoaren eginkizunak. Hauek dira eginkizunok:

- Foru-aldundiek zergen inguruan dituzten eskumenak egikaritzean, beren arteko koordinazioa eta lankidetzaz sustatzea,

Órganos Forales de sus Territorios Históricos, recoge en su artículo 14.3 estos dos elementos. Por un lado, la necesidad de que las disposiciones que dicten los órganos forales competentes, en el ejercicio de la potestad normativa reconocida en el Concierto Económico, regulen de modo uniforme los elementos sustanciales de los distintos impuestos. Por otro, la previsión de que el Parlamento Vasco proceda al desarrollo de las normas de armonización fiscal, coordinación y colaboración entre los Territorios Históricos.

La Ley 3/1989 ha optado por abordar las medidas de carácter armonizador garantizando de forma respetuosa las competencias de las Instituciones de los Territorios Históricos, evitando que las medidas implicaran de hecho la uniformización de sus sistemas tributarios. El articulado de la Ley determina las materias que pueden ser objeto de armonización por parte del Parlamento Vasco, y que afectan a los elementos sustanciales de las figuras tributarias, en función de la diversa capacidad normativa que en cada una de las mismas ostentan las Instituciones Forales.

También, la Ley 3/1989 crea el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi. Su función es impulsar la coordinación entre las Diputaciones para lograr una mayor eficacia en la regulación y en la gestión tributaria.

### **7.a. Composición, funciones y organización**

La composición del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi es un reflejo de la estructura paritaria que se repite en otros órganos de relación entre las Instituciones Comunes y los Territorios Históricos. Tres es el número de representantes nombrados a propuesta de la Consejero de Hacienda y Finanzas, uno de los cuales será el Presidente. Asimismo, cada Diputación Foral nombrará un representante.

Las funciones del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi se relacionan en la propia Ley 3/1989, de 30 de mayo, y son las siguientes:

- Impulsar la coordinación y colaboración entre las Diputaciones en el ejercicio de sus competencias tributarias para lograr

zergen kudeaketan eraginkortasun hobea lortze aldera.

- Harmonizagarriak diren arloei buruzko foru-xedapenen proiektuekin, izaera orokorrekoak, zerikusia dutenen inguruko txostenak egitea.
- Zerga-arloan Autonomia Erkidegoko erakundeek edo lurralde historikoetako foru-organoek eska diezazkieten txostenak egitea.
- Zergak lurralde bakar batean ordaintzen dituzten subjektu pasiboen edo atxikitzaileen errolda egitea.
- Ikuskaritza-plan bateratuak egin eta horien jarraipena egitea.
- Kontsulta lotesleei buruzko txostenak.
- Euskal Ogasunaren jarduerari buruzko Urteko Txostena argitaratzea, kudeaketari eta ikuskaritzari buruzko informazioa biltzen duena.
- Lege honek zein beste guztiek agintzen dizkietenak.

Eusko Jaurlaritzak emango dio Zergak Koordinatzeko Euskadiko Organoari azken horrek lan egiteko behar duen laguntza teknikoa eta administratiboa. Orain artean, Ekonomi eta Ogasun Saila izan da horren ardura izan duena.

## 7.b. 2015 ekitaldiko jarduerak

2015ean hamaika lan-bilera egin ziren, aurrez gai-zerrenda zehaztuta. Ondorengo hauek dira, besteak beste, EAEko Zerga-Koordinaziorako Organoak landutako gai nagusiak:

### Lurralde Historikoetako zerga-araudia bateratzea.

EAEko zerga-politikako proiektuetan parte hartu da; Foru Aldundiekin elkarlanean, hiru Lurralde Historikoetako zerga-sistemak harmonizatu eta koordinatu nahian.

Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoaren hamaika bileretan, aurkeztutako foru arau-proiektuak aztertu eta irizpendu dira. Zehazki, 49 proiekturen edo arau-xedapenen

una mayor eficacia en la gestión tributaria.

- Emitir informes en relación con los proyectos de disposiciones forales de carácter general relativos a materias objeto de armonización.
- Emitir cuantos informes le sean solicitados por las Instituciones Comunes o por los Órganos Forales de los Territorios Históricos en materia tributaria.
- Registro de los sujetos pasivos o retenedores que centralicen el cumplimiento de sus obligaciones fiscales en un solo territorio.
- Elaboración y seguimiento de los planes conjuntos de inspección.
- Informes sobre Consultas Vinculantes.
- Publicar un Informe Anual Integrado de la actuación de la Hacienda Vasca donde se proporcione información relativa a la gestión e inspección.
- En general, las demás funciones que le encomienden las leyes.

El Gobierno Vasco debe procurar al Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi el apoyo técnico y administrativo necesario para el ejercicio de sus funciones. El Departamento de Economía y Hacienda ha venido siendo el encargado de asumir este cometido.

## 7.b. Actividades en el ejercicio 2015

Durante el ejercicio 2015 se convocaron 11 reuniones de trabajo en las que el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi abordó, entre otras, las siguientes cuestiones:

### Armonización de la normativa tributaria de los Territorios Históricos.

Se ha participado en los proyectos de política tributaria de la CAPV, tratando de colaborar con las Diputaciones Forales y contribuir a la armonización y coordinación de los sistemas tributarios de los tres Territorios Históricos.

En las 11 sesiones del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi se han analizado e informado los proyectos normativos tributarios presentados. En concreto, se han informado 49 proyectos o

berri eman da.

#### Estatuko zerga-legediaren egokitzapena.

Estatuko zerga-legediaren egokitzea. Estatuko Administrazioak aitortutako aldaketei, Zergen Foru Araudia nola doitu den aztertzea, Araudi Komuneko itunpeko tributuei dagokienez, bereziki BEZari (Balio Erantsiaren gaineko zerga), Zerga Bereziei eta bestelako zeharkako zergei dagozkienak; hala nola, Foru Araudiaren eskumenik ez duten zerga zuzenen alderdiei dagozkienak (PFEZaren errendimenduari buruzko hainbat atxikipen modalitatearen ingurukoak).

#### Zerga-kontsultei buruzko txostenak egitea

Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzako maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 14. artikulua betez, Foru Ogasunei aurkeztutako kontsulta lotesleei buruzko hamalau txosten egin dira. Halaber, Ekonomia Itunaren 64.b artikulua agindutakoa betez, kontsultei erantzuteko proposamenak aztertu dira, Ekonomia Itunaren lotura-puntuak aplikatzeari buruzkoak.

#### Jakinarazpenak Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordera

Eragiketen bolumenaren proportzioa aldatzeko 26 eskabide izapidetu dira, Ekonomia Itunaren 29.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### Jarduera espezifikoak

Gainera, gastu fiskalen aurrekontua egin da, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Aurrekontu eta Gastuen Idazkaritza Nagusiarekin elkarlana gauzatu da, BEZaren oinarri harmonizatua ezartzeko, Espainiako Estatuak Europar Batasunaren aurrekontuari egin beharreko ekarpenari begira.

Europako Batzordeak foru-mailako zerga-araudiari egindako prozedurei buruz EAEko zerga-administrazioek egindako jarduerak koordinazioan laguntzen jarraitu da.

Erakundeen arteko hainbat lan-taldetan parte hartu da, lurralde historikoen zerga-araudiaren koordinazio- eta bateratze-maila areagotzeko, edota zerga-politikako ekimenak sustatzeko. Esanguratsuenak edo

disposiciones normativas.

#### Adaptación de la legislación tributaria estatal.

Análisis de la adecuación de la normativa tributaria foral a las modificaciones adoptadas por la Administración del Estado en relación con tributos concertados de normativa común, en particular el IVA, los Impuestos Especiales y otros impuestos indirectos, así como aspectos relativos a los impuestos directos sobre los que no se dispone de competencia normativa foral (algunas modalidades de retenciones sobre rendimientos del IRPF).

#### Realización de informes sobre consultas tributarias

A los efectos del artículo 14 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal se han emitido catorce informes sobre las consultas vinculantes presentadas a las Haciendas Forales. Así mismo, a efectos del artículo 64.b del Concierto Económico se han analizado las propuestas de contestación a consultas sobre la aplicación de los puntos de conexión del Concierto Económico.

#### Comunicaciones a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa

Se han tramitado 26 solicitudes de cambio de la proporción de volumen de operaciones de acuerdo con lo establecido con el artículo 29.2 del Concierto Económico.

#### Actuaciones específicas

Se elabora el correspondiente presupuesto de gastos fiscales y se colabora con la Secretaría General de Presupuestos y Gastos del Ministerio de Economía y Hacienda para la determinación de la base armonizada del IVA a los efectos de la contribución del Estado español al Presupuesto de la Unión Europea.

Se ha colaborado en la coordinación de las actuaciones de las administraciones tributarias vascas sobre los procedimientos abiertos por la Comisión Europea a la normativa tributaria foral.

Se ha participado en los diversos grupos de trabajo interinstitucionales creados con el objeto de lograr una mayor coordinación y armonización de la normativa tributaria de los Territorios Históricos y/o promover iniciativas

garrantzizkoenak: Ekonomia Itunaren erreformari buruzko lantalde teknikoa, eta Zerga Iruzuraren aurkako Borrokorako Batzordea, Zerga Koordinaziorako Organoaren erabakiz sortua, Eusko Legebiltzarraren 2013ko irailaren 26ko Ebazpen bati erantzunez.

Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzarekin lankidetzan, Euskal Autonomia Erkidegoak Ekonomia eta Finantza Kontseiluaren lan-taldeetan izango duen partaidetza gauzatu da: D-4 zerga-gaien taldea eta D-5 jokabide-kodearen taldea.

### Argitalpenak

Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua egin da, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzako 3/1989 Legearen 17. artikulua agindu bezala. Izan ere, artikulua horrek ezartzen duenez, Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua egitea da EAEko Zerga-Koordinazioko Organoaren eginkizunetako bat. Halaber, Gaceta Tributaria del País Vasco-Zergak aldizkariaren bi ale argitaratu dira.

de política tributaria. Los más significativos, el grupo de trabajo técnico sobre la reforma del Concierto Económico y la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal creada mediante acuerdo del Órgano de Coordinación Tributaria en respuesta a una Resolución del Parlamento Vasco de 26 de septiembre de 2013.

En colaboración con la Delegación de Euskadi para la Unión Europea se ha materializado la participación del País Vasco en los grupos de trabajo del ECOFIN: D-4 grupo de cuestiones fiscales y D-5 grupo código de conducta.

### Publicaciones

Se elabora el correspondiente Informe Anual Integrado de la Hacienda Vasca previsto en el artículo 17 de la Ley 3/1989 de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, que establece como una de las funciones a desempeñar por el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, la publicación de un informe de la Hacienda Vasca con periodicidad anual y con carácter integrado. Así mismo, se publicaron dos nuevos números de la Gaceta Tributaria del País Vasco-Zergak.